



ANTONIO ZAVALA

**TXABOLATEGI, ELKORO
eta LEUNDA BERTSOLARIAK**

10661
GAS-128/24

**TXABOLATEGI, ELKORO
eta LEUNDA BERTSOLARIAK**

**AUSPOA LIBURUTEGIA
(142)**

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 — Tolosa, Gipuzkoa
Teléfono (943) 67 12 82

ANTONIO ZAVALA

**TXABOLATEGI, ELKORO
eta LEUNDA BERTSOLARIAK**

AUSPOA LIBURUTEGIA
1980

Oarra: Iru bertsoariren bertsoak eta bizitza, liburu onetan. Iru oietan zarrena, Txabolategi degu; ernaniorra. Orregatik, azalean Ernani'ko iduri edo marrazki bat ezarri degu, Juan Mañé Flaquer katalan idazlearen *El Oasis. Viaje al país de los fueros* liburutik artuta. Liburu ori, iru aletan, 1878-1880 urteetan agertu zan.

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)

Inprimatzaille: Itxaropena, S. A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz

Depósito Legal: S. S. 247/80

ISBN 84-7158-083-7

Mayo - 1980

ARKIBIDEA

Txabolategi bertsolaria, Jose Joakin Erroizena Intxauspe (1769-?)	9
Txabolategi	11
Billabona'ko saioa	13
Tolosa'ko saioa	17
Jaiotza	21
Zenbait gertaera eta bertso	29
Eriotza	37
Leon Elgoro Alegria (1843-1919)	47
Leon Elgoro Alegria	49
(1881) Bertso Berriak (Mandamentuak)	55
(1887) Bertso Berriak Leon de Elgoro'k euskeraz jarriyak	61
Bertso Berriak San Martin de Loizaz'en gañian Leon de Elgoro'k jarriyak	69

Manuel Antonio Leunda Arruti (1846-1940)	77
Manuel Antonio Leunda Arruti	79
Gerratea	83
Etxeko errenta	87
Aari-jokoa	89
Erlojua	91
Ganbarako dirua	93
Etxebeltz'eko sagardotegia	95
Billobak	97
Bertso Berriyak bere katuari Leunda'k jarriyak	103
Traperoaren zaldia	111
Bi bertso-puska	113
Santa Ageda	115
Agerre-berri	119
Manuelen zenbait bertso	125
«Egia al da jardun ziñala...»	129

TXABOLATEGI BERTSOLARIA

JOSE JOAKIN ERROIZENEA INTXAUSPE

(1769-?)

TXABOLATEGI

Ernani'tik Goizueta'ra goazela, Latze ballara igaro ta gero, Abillats baserriaren ondotik, bide bat maldan gora asten da. Bide orretan aurrera joanda, bost bat minutu oñez, Txabolategi baserrira iritxiko giñake. Baserri polit bat, zugaitz ederrez inguratua.

Beste baserri bat ere bada Ernani'n, gaur Txabolategi esaten diotena. Bañan bere izen jatorra Bortuluren-borda omen du. Baserri ori, Fagollaga'ko zubia pasa eta andikan gora dago, Onyi mendiaren egalean.

Baserri onek ere, gero esango degunez, zer ikusirik badu Txabolategi bertsolariarekin.

Aurrena aitaturako baserrian, benetako Txabolategi'n alegia, bertsolari bat jaio zan. Antziñako bertsolaria, Pernando Amezketarraren denborakoa. Urumea aldeko bertsozale jendeak, oraindik ere aren aitamenak egiten ditu. Eta bertso eta gertaera batzuk esan ere bai. Bildu

ditugunak, orri-alde auetan arkituko ditu irakurleak. Ez dira asko, bañan gutxi ere ez, ordutik onera ia berreun urte igaro dirala gogoan artzen badegu beintzat.

Xenpelar, Txirrita, Saiburu, Udarregi, Uztapide, Xalbador eta abar bezela, bertsolari au ere beraren etxe-izenarekin ezagutu zan. Izen-abizenak zer zituan, gero esango degu.

Bertsolari onen lenengo aitamena, Iztueta'k egiten du. Txabalategi esaten dio. Erriak gaur nola dion, ez da igertzen erreza. Itza laburtu eta Txâlatei esaten baitu. Berdin izan diteke, beraz, Txabolategi edo Txabalategi. Bañan baserriaren ate-buruan Txabolategi dago, eta paperetan ere orrelaxe arkitu degu. Orregatik, guk ere Txabolategi idatziko degu.

Urumea-alde ori, Goizueta'tik Ernani'ra birtarteko erreka-zulo ori alegia, bertsolari asko eman duan lurra degu. Orkoxeak ziran Txirrita, Saiburu anaiak eta Patxi Bakallo. Orrera etorri zan bizi izatera Pedro Santa Kruz, eta orkoa Txabolategi au ere.

Eta gaur egunean ere badira, bat baño geiago gañera, lagun artean ederki kantatzen dutenak; baita paperean bertso ederrik jartzen dakitenak ere.

Bañan orko bertso-giroa zer dan obeto ikasi nai duanak, Uztapidek *Lengo egunak gogoan* liburuan Ereñozu'ri egiten dion atala irakurtzea dauka.

BILLABONA'KO SAIOA

Arestian esan degunez, Txabolategi bertsolariaren lenbiziko aitamena Iztueta'k egiten du; 1824 urtean argitaratu zuan *Gipuzkoa'ko dantza gogoangarriak* liburuan, Billabona'ko bertso-saio baten berri ematen digu:

«Datorren otsaillean izango dira ogei ta bi urte, Billabona'ko plazan jokatu zutela itz neurtu edo bertsoetan bostna ontza urre, lendanaz apustua egiñik, Zabala Amezketarrak eta Txabalategi Ernani'koak; zeñean izandu nintzan eka-doi edo jueztako Zabala'k billatua; baña egun batzuek aurretik eritasun txiki batek artu ninduelako, ez nuen serbitu, eta nere ordez eraman zuen bere erritar Fernando, baita Txabalategik ere Aizarnazabal'ko elizaia; eta Billabona'ko alkate jaunak erabakitzalle D. Jose Mendizabal Tolosa'ko apez aundi sonatu ura ipiñirik, lau milla ta geiago personaren aurketzean kantatu zuten bi orduz jokalariak, apustua egiña zuten bezala; batak besteari asmatu al zitzaten itz-gairik nekezenak irikiaz, nondik eta nola alkar

naspilatuko zuten alegiñik aundienak egiten zituztela.

Guziaz ere ain zuzen eta egoki eman omen zituen nork bere itz neurtuak, non apostuko bi orduak betetzean, ekadoi edo juezak, alkargana batu baño lenago, altxatu emen zan plazako jende guzia, deadarrez, esaten zutela: jokalari biak kantatu zutela guziz ongi eta utsaldiarik gabe, entzunleak naikidaturik utzi zituzten moduan, eta beragatik onkai zutela berdiñ-berdiñean gelditzea; zeñean irten omen zan era berean Aizar-nazabal'ko elizaia plazaren erdira, eta kantatu omen zuen itz neurtu au:

Txabalategi eta
Zabala gaztea,
askok deseo zuen
kantuz ikustea;
atsegin andietan
geldi da jendea,
bata adinbat egin
bear degu bestea.

Pernandoren erantzuera:

Ezin gentzake bada
beste gauzarik eiñ,
nik gogoan naukana
zuk dezu itzegiñ:
utzi bear ditugu
biak berdiñ-berdiñ,
Gipuzkoa guziak
ar dezan atsegiñ.

D. Jose Mendizabal'en debedea edo falloa:

Jaunak, mintzo zerate
grña txarrik gabe,
pozkidatu nazute
txit asko alere;
egia esateko
ipiñiak gaude:
bata bezin bestea
kantari onak daude.

Iru ekadoi edo juez oek izanik gizon zentzu aundikoak, grña onakikoak eta berenez itz-neurtulari jakintsunak, eman zuten beren debede edo falloa etzedilla izan inor ez irabazdun eta ez galtzalle; zergatik aurkitzen zuten jokalaria bien artean jakinduria berdiña. Erabakitze ain zogiararen bitartez gelditu ziraden entzuleak atsegin aundiarekin eta naierara pozkidaturik; baita jokolariak ere beren denbora guzirako adiskide mami egiñik.»

* * *

Txabolategiren urrengo aitamena, Tolosa'ko Pablo Gorosabel'ek egin zuan, bere *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa* liburuan. Liburu ori 1899 urtean argitaratu zan; bañan egillea 1868 urtean il baitzan, urte au baño lenago idatzia bear du. Gorosabel'ek ere, Billa-bona'ko saioaren berri ematen du. Onela dio:

«*Uno de estos casos más memorables tuvo lugar el año de 1801 en la plaza de Villabona, entre Juan Ignacio de Zavala, vecino de*

Amézqueta, y José Joaquín de Erroicena, que lo era de Hernani, ambos versistas de los más afamados de la provincia, cuya apuesta consistió en cinco onzas de oro por cada parte; para la calificación del más meritorio de entre ellos, se formó un jurado compuesto de tres sujetos no menos inteligentes en la materia, nombrados uno por cada interesado y el tercero en discordia por el alcalde de aquel pueblo. Más de cuatro mil personas concurrieron a presenciar tan singular certamen, que duró por espacio de dos horas enteras, sin poder vencerse los contrincantes. Después de este período, satisfecho completamente el público de la habilidad que demostraron estos, se levantó unánime a pedir en gritos la suspensión de la lucha, declarando a ambos por iguales en mérito. Así se hizo por los jueces del jurado, de lo que los espectadores recibieron un gran contento y satisfacción.»

* * *

Iztueta'k, «eritasun txiki batek arrapatu zuelako» ara gabe gelditu baitzan, bertan izan ziranen aotik ikasiko zuan gertatuaren berri.

Gorosabel'ek, berriz, 1803 urtean jaioa baitzan, esaten dituanak nundik jaso ote zituan? Ez du olakorik adierazten. Bañan ez ditu danak Iztueta'ren liburutik artzen, argibide berririk ere ematen du-ta.

Argibide berri oietako bat, bertsolarien izen-abizenak: «Juan Ignacio de Zavala» eta «José Joaquín de Erroicena». Beste bat, urtea: 1801.

TOLOSA'KO SAIOA

Iztueta'k, Txabolategi bertsolaria osterara ere liburu berean aitatzen du. Onela esaten digu:

«Tolosa'ko erri leñargitiko batzartar jaunak, 1802'garren urteko iñauteriaren azkenengo arratsaldean, biribillatu zituzten lau itz-neurtulari, Gipuzkoa'n aurki al zitezkean onenak: Zabala, Pernando, Txabalategi eta Altamira, lauak letra bat bakarra ere ezagutzen etzutenak.

Plaza zarreko baranda banatara igorik, kantatu zuten arratsalde guzian bi-bitara. Ain atsegintasun aundikoa ta pozkidatsua izandu zan arratsalde gogoangarri ura, ezik, illunduta gero ere, deadarka zeuden entzuleak, aurrera ere kanta eragiteko, eta uste det, baldin eguna zabaldu arterañoeko guzian ere ari izandu balira kantari, etzala aldenduko entzuleen artekorik iñor ere.»

* * *

Gorosabel ere mintzatzen da bertso-saio orretaz. Len aitaturako liburu orretan onela esaten digu:

«Otro certamen igual se celebró el tercer día de carnaval del año inmediato entre el expresado Zavala, Fernando de Bengoechea, de Amézqueta, el también citado Erroicena, y Juan Bautista de Altamira, de Tolosa. La lucha fue entre los dos primeros contra los otros dos en la plaza vieja de esta última villa. Colocados los cuatro sujetos en dos tablas de frente, versearon un canto popular guipuzcoano durante toda la tarde; y continuarán sin duda mucho más tiempo, si la noche no hubiese sobrevenido a poner fin a tan agradable diversión. Quedó, pues, indecisa la opinión de los espectadores respecto de cuál de los contrincantes era el más meritorio en este ejercicio, o sea, habilidad poética.»

* * *

Iztueta, bolara artan, Tolosa'n zan, bañan kartzelan: 1801'eko abenduaren 6'an preso artu, 18'an Tolosa'ra eramán, eta 1802'eko maiatzaren 11'an Azpeiti'ko kartzelara aldatua (1). Tolosa'ko saio ori, berriz, 1802'eko «iñauteriaren azkenengo arratsaldean» izan zan. Iztueta bertan zegoalarik, beraz.

(1) Jesus Elosegui: *Juan Ignacio de Iztueta Echeberria (1767-1845)*, San Sebastián 1969, 94 orri-aldean.

Garai artan Tolosa'ko kartzela zein tokitan zan, guk beintzat ez dakigun gauza da. Bañan udaletxean baldin bazan, plaza zarrean alegia, etzegoan Iztueta bertsolariengandik urruti; auek «plaza zarreko baranda banatara igorik» kantatu baitzuten.

Bearbada, an egongo zan gizarajoa, belarriak erne-erne, illunpe artatik bertsoak entzun naiean.

Kontu polita au ere: bertsolariak plazan kantuan, eta aien *kronista* edo berri-emalea bertsoak espetxetik entzuten...

Tolosa'ko Jesus Elozegi adiskidea zanak esan artean, gu ez giñan txeetasun onetaz oartu ere egin. Milla esker berari.

JAIOTZA

Gorosabel, kondaira-idazle zuzena eta serioa zan; gauzak nolaini esaten ez dituzten oietakoa, alegia.

Orregatik, Txabolategiren izen-abizenak nundik dituan esaten ez badu ere, ontzat ar ditzazkegunak dira, guk uste beintzat. Tolosa'ko udallexeko paperen batetik-edo artuko zituan; bearbada, oraindik ere ango artxiboan egongo da paper ori.

Ala, «Jose Joaquín de Erroicena» izen-abizena oñarriztat artuta, Ernani'ko eliz-artxibora joan giñan, aren bataio-agiririk arkituko ote genduan.

Berealaxe azaldu zitzaigun «Josef Juaquin de Erroizena» bat; Arostegi bigarren abizena, eta 1774'eko Martxoaren 5'an jaioa (1).

Bañan liburu berean, an azaldu zitzaigun beste «Joseph Joaquin de Erroizenea», aurrekoren

(1) Ernani'ko 5'gn. bataio-liburuan, 199 orrian.

lengusua, bigarren abizena Intxauspe zuana, eta 1769'eko Martxoaren 2'an jaioa (2).

Korapillo ederra, beraz: oietako zein gure bertsolaria?

Eliz-artxiboan saiatu giñan, ori argitzeko biderik izango ote zan, bañan alperrik; ez genduan olakorik ezer somatu.

Orduan, andik udaletxeko artxibora joan giñan. Erriko Etxeetan, orain eun bat urte asi ziran jaiotakoen-eta kontu eramaten. Beraz, ortik ere etzegoan guretzat probetxurik.

Bañan bear genduan argibidea, *Padrón Municipal* izeneko oietan azaldu zan.

1842 urtekoan, Txabolategi baserrian, onako lagun auk bizi zirala agertu da: Nikolas Erroizenea, Manuela Antonia Etxeberria, eta Domingo, Jose, Juan Maria, Migel Inazio eta Juan Bautista. Auk danak, Erroizenea abizenekoak; seguru asko, aurrekoen semeak.

1856'ekoan agertu danez, fameli ori bera bizi da Txabolategi'n.

1860'ekoan, txeetasun geiago ematen da. Onako lagun auk bizi dira Txabolategi'n: Nikolas, 70 urtekoa, alarguna, nekazaria; Domingo, 40 urtekoa, ezkondua, nekazaria (3); Ma-

(2) Ernani'ko 5'gn. bataio-liburuan, 157 orrian.

(3) Ereñozu'ko Jose Oiarbide'k, Domingo onen aditzera badu, lengo zarrei entzunda. Bertsotan zer edo zer aritzen zana omen zan, eta Txirritak, artean zortzi edo bederatzi urteko mutikoa, onela esaten omen zion:

— Neri bertsotan erakutsi bear didazu, Domingo.

nuela Elizondo Gereño, 42 urtekoa, aurrekoaren andrea; eta Manuela eta Rosa, aurreko senar-emazteen alabak. Etxeko iñork ez daki idazten eta irakurtzen.

1868 eta 1871'ekoak esaten dutenez, lagun oiek berak bizi dira Txabolategi'n.

1885'ekoan, inguruko baserri guzien berri beti bezin argi eta garbi ematen da. Txabolategi izena ere idatzita dago, bañan azpiko paper-puska utsik. Zer esan nai du orrek? Txabolategi'n iñor bizi etzala? Ala ango bizi-lagunen berriak aldi artan jaso gabe gelditu zirala? Ez dakigu zer esan.

1889'ekoan, lagun auk bizi dira Txabolategi'n: Mariano Eizagirre Kerejeta, ezkondua, azpeitiarra, 1853'an jaioa; Manuela Erroizanea Erroizanea, ernaniarra, ezkondua, 1849'an jaioa; eta beren seme-alabak; Jose, Rafael, Anjel eta Maria, danak Ernani'n jaioak.

Lagun oiek berak ageri dira Txabolategi'n, 1890, 1895 eta 1899'ekoetan.

Ikusten danez, gizona etorkiña zan. Andrea, berriz, len ere Manuela Erroizanea bat bazan Txabolategi'n, bañan Elizondo bigarren abizena. Bearbada, oker kopiatuko zuten, eta Manuela ori lengoa bera izango da.

1910'ekoan agertu danez, Ramon Izagirre Erroizenea da Txabolategi'ko etxeko jauna. Ezagutu zutenak esan digutenez, lengo Jose ori bera da, berez Jose Ramon baitzan. Maria Oiar-

bide Zuaznabar du bere andrea, eta Martina eta Mariano seme-alabak.

Esan digutenez, fameli ori andik Ereñozu'ko Ubarroto baserrira aldatu zan.

1924'ekoan, beste bizi-lagun batzuk ageri dira Txabolategi'n: Antonio Oiarbide Iraola eta Maria Zabaleta Peruarena, beren fameliarekin. Seme-alabetan gazteena, Telesforo, gaur Txabolategi'ko etxeko jauna dana eta liburu onetarako ainbat argibide eman diguna.

Padrón Municipal oietan azaldu danez, 1842'etik 1871'era, Erroizenea abizeneko famelia bizitu zan Txabolategi'n. Urrena, abizen ori bigarren tokira atzeratzen da, eta gero erabat galdu.

Ori kontuan artuta, ostera eliz-artxibora joan giñan. Gure egitekoa auxe zan: 1842'etik 1871'era Txabolategi'n bizi ziran lagun en jatorria goruntz aztertu, Erroizenea Arostegi'tarrekin edo Erroizenea Intxauspe'tarrekin topo egin arte.

Ez genduan lan zailla izan: 1842 urtean agertu zitzaigun Nikolas Erroizenea orren gurasoak, Juan Bautista Erroizenea eta Maria Antonia Zabalala izan ziran; eta Juan Bautista orrenak, Frantzisko Erroizenea eta Sebastianana Intxauspe.

Beraz, Erroizenea Arostegi'tarrak galdu dute auzia, eta Jose Joakin Erroizenea Intxauspe izango da Txabolategi bertsolaria.

Jose Joakin au, len esan bezela, 1769'eko Martxoaren 2'an jaio zan, egunsentian.

Iru senide izan zituan. Bera baño zarragoak: Maria Esteban, 1763.VIII.3'an jaioa, eta Juan

Bautista, 1765.VII.7'an jaioa. Eta gazteagoa: Migel Jose, 1771.XII.18'an jaioa (4).

Gurasoak: Frantzisko eta Sebastiana. Aiton-amonak, aitaren aldetik: Martin eta Josefa Antonia Garaiar. Amaren aldetik: Juan Bautista eta Brijida Lasurrutegi.

Bañan ortik aurrera ez degu Jose Joakin Erroizenea Intxauspe orren beste agiririk arkitu: ez ezkontzakorik, ez eriotzakorik. Parroki-ko artxiboa, ustez beintzat, arretaz aztertu degu, bañan alper-alperrik. Udaletxean ere ez da ezertxo azaldu.

Txabolategi baserria Ernani'tik Naparroa'ra-ko bidean dagoala-ta, bada-ezpada ere Goizueta eta Arano'ko artxiboetan saioa eginda gaude. Alperrik oietan ere.

* * *

Beste bide batetik abiatuta ere, gauza bera atera degu: Txabolategi bertsolaria, Erroizenea Intxauspe famelikoa zala.

Guk bixitatu genduanean larogei urte zituan Jose Migel Elorza jaunari zor diogu beste azterketa ori egiten asteko ari-muturra. Onela esan zigun:

«Txabolategi bertsolaria, Txabolategi baserrikoa zan berez. Bañan esposatu eta beste etxe batera etorria. Bortuluren-borda du beste etxe

(4) Ernani'ko 5'gn. bataio-liburuan, 109, 128 eta 181 orrietan.

orrek bere izen jatorra. Bañan bertsolari ori an bizi izaten jarri zalako, Txabolategi-enea esaten zaio orain.

Ni ere, Pardiola-goikoa baserrian azitakoa naiz. Bañan orko aitona oiartzuarra zan; Josepe izena. Eta arrezkeroztik, Josepe-enea esanda ezagutzen da.

Bi baserri oiek, Txabolategi-enea eta Pardiola-goikoa, alkarren auzo egiten dira.

Txabolategi bertsolaria orrera etorri bizitzera, eta beraren alaba bertara ezkondu. Gizona, aiarra zuan: Praixku Pagola. Lau seme izan zituzten: Jose Mari, Martin, Jose eta Inazio, aitona bertsolariaren alabaren semeak. Seme oietako baten semea bizi da gaur baserri orretan.»

Oneraño Jose Migel Elorza jaunaren itzak.

Eliz-artxibora joan giñan andik. Lenengo lana, lau anai oietako baten il-agiria billatzea. Jose Marirena eskuratu genduan.

Jose Maria Pagola Erroizanea, 69 urtekoa, nekazaria, Txabolategi baserrian il zan, 1950'eko Martxoaren 27'an. Beraren gurasoak: Frantzisko eta Maria Juana (5).

Jose Maria Pagola ori, Ernani'n jaioa zan, 1880'eko Uztaillaren 15'an. Gurasoak nortzuk zituan esanik daukagu. Ama, Arano'n jaioa zan. Aiton-amonak, amaren aldetik: Jose Errozarenea eta Maria Luisa Rekalde (6).

(5) Ernani'ko 14'gn. eriotz-liburuan, 25 orrian.

(6) Ernani'ko 12'gn. bataio-liburuan, 53 orrian.

Maria Juanaren bataio-agiria Arano'n arkitu genduan. 1849'eko Maiatzaren 4'an jaio zan.

Gurasoak: Jose Erroizorenea —abizena alaxe dago— eta Maria Rekalde. Aiton-amonak, aitaren aldetik, Bautista Erroizorenea eta Maria Antonia Zabala (7).

Maria Juana orren gurasoakgatik onela esaten du bataio-agiri orrek: *naturales de Hernani, mis feligreses*. Alegia, Ernani'n jaio, bañan Arano'n bizi ziranak. Ain zuzen, beren ezkontza-agiria ere bertan arkitu degu.

Jose Erroizorenea eta Maria Luisa Rekalde, 1848'eko Uztailaren 16'an ezkondu ziran. Biak ere alargunak ziran; senargaia Ernani'n eta andregaia Arano'n bizi ziranak (8).

Jose orren gurasoak, Bautista eta Maria Antonia Zabala izan ziran; Ernani'n 1793'eko Abuztuaren 19'an ezkonduak (9).

Bautista eta Maria Antonia auek, lau seme-alaba izan zituzten: Nikolas Bizente, 1794.X. 4'an jaioa; Migel Jose, 1797.I.5'an; Manuel, 1799. IX.21'an; eta Josefa Inazia, 1803.III. 14'an (10).

Migel Jose ori izango da len aitaturako Jose Erroizorenea; Migel alde batera utzi eta Jose bakarrik esango zioten.

(7) Arano'ko 5'gn. bataio-liburuan, 69 orrian.

(8) Arano'ko ezkontza-liburuan, 80 orrian.

(9) Ernani'ko 3'gn. ezkontza-liburuan, 192 orrian.

(10) Ernani'ko 6'gn. bataio-liburuan, 167 eta 183 orrietan; eta 7'garrean, 3 eta 33 orrietan.

Senide auen aiton-amonak, aitaren aldetik, Bautista orren gurasoak alegia, Frantzisko Erroizenea eta Sebastiana Intxauspe izan ziran.

Berriro ere, Erroizenea Intxauspe'tarrekin topo egin degu.

Une batez, Arano'n ezkondu zan Jose Erroizorenea ori, Txabolategi bertsolaria izango ote zan bururatu zitzaigun. Alegia, Joakin baztertu eta Jose soil-soillik esango ziotela. Bañan be-realaxe uxatu genduan pentsakizun ori. Esan bezela 1797 urtean jaioa izanik, gaztetxoan zan 1801 eta 1802 urteetan Billabona'ko eta Tolosa'ko plazetan kantuan jarduteko.

Orren osaba izango zan Txabolategi bertsolaria; 1769 urtean jaio eta beste agiririk arkitu ez diogun Jose Joakin Erroizenea Intxauspe ori alegia.

Jose Joakin Elorza'k esan ziguna, ia dana zuzen atera da, beraz. Txabolategi-enea edo Bortuluren-borda'ko jatorria, Txabolategi bertsolariarengandik ez; beraren anai eta illoba batengandik datorrena dala; orixe bakarrik.

Bertan bizi diranai, Jose Maria Pagola Erroizorenea'ren ondorengoai, beren aurreko Txabolategi bertsolariari buruz zerbait ba ote zekiten galdetu eta onela erantzun ziguten:

— Gure difuntua aritzen zan, bañan guk afiziorik ez degu izan.

ZENBAIT GERTAERA ETA BERTSO

Txabolategi baserrian jaio eta gaur bertako etxeko jauna dan Telesforo Oiarbide'k, onela esan digu:

«Or, arunzko aldean, bada arkaitz bat, eta arkaitzaren azpiko aldean soro bat, eta an egiten zuten artoa.

Eta, gerra-denboran, Txabolategi egoten omen zan gabean, laputxako eskopeta batekin, arkaitzaren atzean, artoaren goardian.

Auzotikan, gabean, artoa ostutzera etortzen omen ziran.

Laputxako eskopeta zuan, kañoiaren muturretik kargatzen zana.»

Zer gerra ote zan? Gure iritzirako, erderaz *Guerra de la Convención* deritzana (1793-1795), edo, bestela, frantzestea (1808-1814).

Bigarrenkoa izateak itxura geiago du. Bate-tik, bestea baño luzeagoa izan zan; zabalagoa ere

bai, bazter guzietaraño iritxi zan-eta. Bestetik gizon geiago beartu zuan armak artzera, eta gu-txiago utzi lanerako.

Soldaduak ere, bai alde batekoak eta bai bestekoak, tokian tokiko gauzak janez mantentzen ziran.

Ala, ikaragarrizko gosetea zabaldu zan alderdi guzietara.

Orduko gorabera izango da, beraz, Txabolategiren artoaren goardia.

Bañan, len esan bezela, Txabolategi noiz il zan ez dakigu.

Orregatik, mundu-aldi luzea arrapatu baldin bazuan, beste bi gerra ere ikusiko zituan: *guerra realista* esaten zaiona (1821-1823) eta karlisten lenengoa (1833-1839).

Bañan oietan, bizi izanik ere, zarregia izango zan eskopeta artu eta artoaren goardia egiteko.

* * *

Onako gertaera eta bertsoak, Ereñozu'ko Jose Oiarbide'ri jasoak:

«Arano'ko mendietan, otsoren batek ardiak iltzen zituala-eta, artzaiak ezin buruturik zebiltzan.

Egun batez, eiztari-mordo bat bildu eta or dijoaz mendira, otsoa akabatzeko asmotan. Bi apaiz ere baziran tartean.

Apaiz oiek, oso arma dotoreak zeramazkiten; diz-diz egiten zuten eskopetak.

Besteak, berriz, erdoiarekin gorri-gorri egin-
dakoak.

Badijoaz eta or topo egiten dute Txabolategi
bertsolariarekin, eta onek bertso aukerak kantatu
zizkien:

Arano'ko eiztariak
Urumia'tarrak,
kolore biñakuak
zenituzten armak:
zarrallak beltzak eta
kañoiak nabarrak;
ederragua zaukak
Belaundia jaunak,
dezente egon bear dik
ola juango danak.

Miel Domingo jauna,
Don Bitor apaiza,
otsua arrapatzen
duda gabe gaitz-ta (1);
artzai oiengandikan
errenkura maiz-ta (2):
ardia edo bildotsa
jan diela aixa;
dituenari beti
galdu biar zaizka.»

* * *

Onako aukerak ere, Ereñozu'ko Jose Oiarbide'
ren aotik jasotak:

(1) gaitz-ta: gaitz da.

(2) maiz-ta: maiz da.

«Urnieta'n, bein batez, mando baten tratua egin omen zuten ango bi gizonek-edo.

Bein zutik jarri ezker oso ibillera dotorea omen zuan mando orrek, bañan bera bakarrik ezin lurretik altxa.

Eta Txabolategi ere an izaki, eta bertso auek kantatu omen zituan:

Saltzallia Inazio,
erostuna Pepe,
mando baten tratua
Urnieta'n dute;
ori artu dubenak
beretzako kalte,
sasoi polita zuben
orain ogei urte.

Manduari begira
Inazio parraz,
lau lagun ari ziran
zutik ezin paraz;
aide gaiztuen batek
baldartu du gabaz,
neria balitzake
ilko nuke balaz.»

* * *

Beste au, Ernani'ko Jose Migel Elortza'ren aotik:

«Ereñozu'ko Tximistanea baserrian boda zan, eta Txabolategi ere ara bildu bertso tara.

Astigarraga'ko jueza ere an, eta bete-bete egin eta sala zarretik goitik bera simaur-pillara erori.

Eta Txabolategik orduan:

Gaur ikusia degu
komeri polita,
Astigarra'ko jueza
kaka tartera erorita...

Geiago ere baziran. Eta norbaitek apuntatu
egin zituan eta orrela zabaldu omen ziran.»

* * *

Auek ere, Ereñozu'ko Jose Oiarbide'ren aotik artuak:

«San Anton eguna, Ilbeltzaren 15'garrena, mandazaien festa izaten zan.

Garai artan danak mandazaiak ziran, esateko. Mendian egiten zan gauza guzia, mandoetan ekartzen baitzuten.

Eta Txabolategi ere ala zan: mandazaia.

Urte batez, San Anton bezperan parranda eginda, or iritxi da etxera goizeko lauretan, xox guziak gastatuta.

Eta, barrena sartzerakoan, onela kantatu omen zuan:

Gaur gizon batek egiten zuben:

«Biba Anton!»

Olako gauzak mundua ontan
tokatzen dira *al trompón*;
dama gaztiak bere denboran
edukitzen du mamanton,
nere diruak atzo aituta
gaur goizian zan San Anton.»

* * *

Beste auek, berriz, Oiartzun'go Karrika ballarako Lekungarai baserriko Koxme Mitxelena'ri jasoak ditugu:

«Aldura guardamontea, Aldura baserriko semea zan. Inguru auetan basurde geiena iltako gizona.

Arek zuen, Aldura'n bertan, txabola zerrientzat egiña.

Kanpoan edukitzen zituen, eta arratsean jatekoa jarri an eta zerriak ara bildu gabeen jatera, eta zerriakin batera basurdeak ere etorri txabolara.

Eta goizean jeiki Aldura ori eta basurdea igual zerriakin istorian, eta iñor sumatzean-edo atera nai, bañan arek leiotik edo atetik basurde asko il.

Bestela ere, eizean asko zuan arrapatua.

Istori aundiko gizona zan. Oso gizon pamatua.

Eta gazte jendearekin asko gustatzen zitzaiona.

Askotan juntatzen giñan, Karrika'n-edo, arek bere buelta egin eta illunabarrean edo zeran, kafea artzen alkarrekin.

Eta kanta zarrak kantatzen izugarria zan ura, eta, lastima, orduan kasorik ere ez guk.

Inportantzi geiago emango nioteke gaur, arek kantatzen zituan bertsoai.

Ala ere, auek ari ikasiak ditut. Urumea'ko

Txabolategi orrenak ote ziran edo ortik nunbaitik atereak beintzat. Aldura zarrak kantatzen zituen:

Goizueta'ko mendira
jendiak juaten dira;
amakiña bat jende bazegon
tartian neri begira;
mendian eizak badira,
oiengatik libre dira.

Arma pixtonik gabia,
bezperan gaizki paria;
alper-alperrik okupatu dek
basurdiaren biria;
iltzeko (y) uen iria,
nun dek abillidaria?»

* * *

Migel Arozamena bertsolaria zanak, Ernani aldean-edo norbaiti ikasia, bertso-puska au eman zigun:

Txabolategik ostuak
daduzkan ardiyak,
gosiak ilko zaizka
daduzkan erdiyak.

Itxura danez, beste bertsolariren batek Txabolategiri kantatua izango da.

* * *

Bañan Txabolategiren bertsoarik geiago ere iritxi da guganaño. Lendik ere baditu *Auspoa*'k banaka batzuk argitara emanak.

Pernando Amezketarraren liburuan, 54'garren zenbakian, 54'garren orri-aldetik aurrera, badira Txabolategiren bertso batzuek; bederatzia puntukoak gañera.

Eta 106'garren zenbakian, 75'garren orri-aldetik aurrera, Pastor Izuela'k eta Txabolategik alkarri kantatutako bertso batzuek arkituko ditu irakurleak.

ERIoTZA

Len ere esan degunez, Txabolategiren il-agi-
ria ez degu iñon ere arkitu.

Ori entzutean, arriturik gelditu dira Ereñozu
eta Latze aldeko bertsozaleak, berak, beren au-
rrekoengandikan ikasita, bertsolari au nola il-
zan garbiro esaten baitute.

Askori entzun diegu. Oietako batzuk: Ako-
la baserriko Gregorio Santa Krutz zana, Txabo-
lategi'ko Telesforo Oiarbide, beraren lengusu Jo-
se Oiarbide eta abar. Danak ere bateratsu kon-
tatzen dute:

Txabolategi, arrobiren batean edo mendian
aritzen zan lanean; etxetik kanpora beintzat.
Andrea, bazkaria edo gosaria-edo eramatera joan.
Etzan, beraz, etxetik oso urruti izango. Botilla
bat esne ere bazeramakian. Esnea, ordea, bero
xamarra eta botilla lertu. Beste batzuek diote-
nez, bidean erori eta botilla puskatu egin zi-
tzaion. Bañan lertu edo puskatu, lepo aldetik
egin zan. Eta Txabolategik esne ura artu eta

uste gabean kristal-printzaren bat irentsi. Eta ortik zer zetorkion igerri zionean, onako bertso au, bere azken bertsoa, kantatu omen zuan:

Espezia txarren bat
sartu zait barrenen (1),
bildur naiz nere billa
etorri ote den;
San Pedrok sar nazala
ate artan barren,
ala komeni bada,
biba Jesus, amen!

Edozeñek dakianez, *espeziak* Indietatik ekartzzen ziran, jatekoari gusto geiago ematearren.

Irugarren puntua, «zeruan barrenen» esaten dute geienak. Bañan orrela poto da. Orregatik, «ate artan barren» idatzi degu, Errenteri'ko Pello Zabaleta bertsolaria zanak esan zigun bezela alegia.

Bertso au eta bere aurreko adierazpena, nainko ezagunak dira EuskalERRI guzian. Bañan Uru-mea aldean Txabolategirenak dirala esaten dan bezela, bestetan Xenpelarri, Udarregiri edo Fernando Amezketarrari eransten dizkiote. Ez ordea beren errietan, erbestean baizik. Ortaz gañera, bertsolari oiek badakigu bestela il zirala; ez kristal-printza bat irentsita.

(1) Puntu au beste onela ere jaso izan degu: «Gaitz txarren bat badaukat nik emen barrenen...», «Trixtura bat sartu zait entrañetan barren...», «Esperientzi txiki bat sartu zait barrenen...»

Orregatik, gure iritzirako beintzat, bertso orren jabea Txabolaregi izateak itxura geiago du.

Beragatik, pena geiago artzen degu bertsolari onen il-agiria iñun ez arkitua. Agiri orrek argibide geiago eman baitezakean gai onetzaz. Eta, besterik ez bada ere, Txabolategik mundu onetan zenbat urte egin zituan esango baitzigun.

* * *

Azkue'k bertso au, bere doñuarekin, Adu-na'n jaso zuan, noren aotik esaten ez badu ere. Etzuan bere *Cancionero vasco* kantutegian argitaratu. Bañan Bizkai'ko Diputazioaren sarirako prestatu zuan mordoan antxe dago, 563 zenbakiarekin.

Bertsoak bi aldaketa ditu: lenbiziko eta seigarren lerroak beste onela: «Espezia onen bat» eta «zeruan lenbailen».

Eta doña:





Aita Donosti'k, bere *Euskel Eres Sorta* kantutegian, 1921, 260 zenbakiarekin, bertso au beste doñu batekin dauka, Naparroa'ko Oskoz'en jasota:

Idropesiek dauzkat
mienbroetan barnen,
bildur naiz nere billa
etorriak diren.

San Pedrok sar nazala
zeruaren barnen,
ala gerta dedilla,
biba Jesus, amen.

The musical score is written on a single treble clef staff in G major (one sharp) and 2/4 time. It consists of eight measures of music. The first measure is the start of the piece. The second measure contains a triplet of eighth notes. The third measure contains a triplet of eighth notes. The fourth measure contains a triplet of eighth notes. The fifth measure contains a triplet of eighth notes. The sixth measure contains a triplet of eighth notes. The seventh measure contains a triplet of eighth notes. The eighth measure is the end of the piece, marked with a double bar line and a repeat sign.

Ereñozu'ko Florian Oiarbide'k, Txabolategiri buruz bere aurrekoai entzuna, bertsotan jarri eta *Zeruko Argia* astekarian argitara eman zuan, 680 zenbakian, 1976'eko Martxoaren 21'an.

Ez da iñoren kalterako izango, bertso oiek onera aldatzea:

1. Ernani'ko ballara
paketsu batean,
Onyi eta Agiña
mendien tartean,
len pagadi ziranak,
gaur piñu artean,
baserritxo bat dago
Jaunaren pakean.
2. Orrek Txabolategi
du bere izena,
bertsolari bat bazan
txukun ta zuzena,
antxe jaio ta bertan
bizi izan zana,
etxearen izenez
deitzen ziotena.

3. Txabolategi lengo
gizaldikoa zan,
munduan ibilia
bertsolari gisan.
Sagardotegietan
baita ere plazan,
aren entzute ona
nork ez degu izan?

4. Txabolategirenak
bertsoa ugari,
entzuten nion nere
aitona zanari.
Zertatik il zan ere
ark esana neri,
gaur bertsotan jarriko
dizuet zueri.

5. Lantokira esnea
Txabolategiri
emazteak eraman
oi zion berari;
bidean zeramala
botilla erori,
lepo-lepotik autsi
baiñan ez ixuri.

6. Emazteak botilla
senarrari eman,
esanaz nola autsi
zitzaion bidean;
baiñan ardura gabe
ark esnea edan,
eta kristal-printza bat
sartu sabelean.

7. Este danak zulatu
kristalaren printzak,
ta ezin asko iraun
munduko bizitzak;
bertsotan jarri zuan
bere eriotzak,
Jesusi eskeñiaz
azkeneko itzak.

8. Bertso eder xamur bat
guztiz zerutarra,
norbaitek eman zion
artarako indarra.
Itz neurtuzko otoitza
ta azken agurra,
bukatu ordurako
il omen zan, orra!

9. Txabolategi gizon
fede aundikoa,
il zorian Jaunari
kantatutakoa.
Uste det erakutsi
zuala naikoa,
bertsolaria zala
ben-benetakoa.
10. Naiz-ta bertsolariak
izan berekiko
jatorrizko doaia
itz neurtuetako,
ez da lan egokia
nere usterako
eriotzean dagon
gizonarentzako.
11. Milla eratakoak
naiz sortu mundura,
eriotzari danok
diogu ardura.
Neri sarritan auxe
datorkit burura,
Txabolategik zuan
espiritu ura.

12. Bukatzera nijoa
asitako lana,
sentimentuak bultza
ta egin dedana,
euskaldun izar eder
goxo arengana,
bertsolari bizi ta
bertsotan il zana.

LEON ELKORO ALEGRIA
(1843-1919)

LEON ELKORO ALEGRIA (1843-1919)

Leon Elkoro bertsolari onek, beste bertso-saillik ere izango zuan bearbada, bañan gure eskuetara iru bakarrik iritxi dira.

Nungoa zan ere ez genekian; bañan sail oietako batean, azken bertsoan, Otxandio'ko semea dala berak esaten digu.

Ala, arratsalde batez Otxandio'ra joan giñan, eta, bertako erretore jaunak lagunduta, aren bizardari buruz argibide batzuk bildu al izan genituan.

Leon Elkoro Alegria, Otxandio'n jaio zan, 1843'eko Otsaillaren 20'an, arratsaldeko ordu-bietan (1).

Gurasoak, Pio Elkoro eta Maria Dolores Alegria zituan; biak otxandiotarrak eta 1841'eko Urriaren 9'an ezkonduak (2).

(1) Otxandio'ko 9'gn. bataio-liburuan, 187 orrian.

(2) Otxandio'ko 6'gn. bataio, konfirmazio eta ezkontza-liburuan, 276 orrian.

Aitaren aldeko aiton-amonak: Antonio, Elgeta'koa, eta Maria Jesus Abaunza, Abadiño'koa, bañan Otxandio'n bizi ziranak.

Amaren aldekoak: Migel, Araba'ko Leza errikoa, eta Juana Manuela Ortiz de Zarate, otxandiotarra; auek ere Otxandio'n bizi ziran.

Senideetan zarrena bera izan zan. Besteak: Teodoro, 1844.XI.9'an jaioa; Magdalena, 1847.VII.22'an; eta Petra, 1849.X.19'an (3).

Leon, ogei ta amar urterekin ezkondu zan, Otxandio'n bertan, 1873'eko Ilbeltzaren 18'an, Bonifazia Pujana Unzalu'rekin. Andregaiak ogei ta zortzi urte zituan, eta Olaeta'ko alaba zan (4).

Onako seme-alaba auek izan zituzten: Dominika, 1874.V.12'an jaioa; Maria Enkarnazion, 1877.III.24'an; Fermina, 1880.X.10'an; eta Pedro eta Petra, bixkiak, 1884.I.18'an (5).

Petra au, il-arriskuan zala-ta, etxean bertan bataiatu zuan medikuak, eta aingerutan il zan.

Bataio-agiri auetan, aitaren ogibidea onela adierazten zaigu: lenengo bietan, *clavetero*, iltze-gillea alegia, eta beste bietan *herrero*, errementaria. Etzan langintza oietan bakarra izango Otxandio'n.

Andrea, Bonifazia, 1889'eko Garagarrillaren 16'an il zan, berrogei ta lau urterekin.

(3) Otxandio'ko 9'garren bataio-liburuan, 208, 233 eta 253 orrietan.

(4) Otxandio'ko 3'garren ezkontza liburuan, 64 orrian.

(5) Otxandio'ko 11'garren bataio-liburuan, 40, 76, 155 eta 202 orrietan.

Ogibidez *labradora*, nekazaria zala esaten digu il-agiriak. Lur-puskaren bat-edo izango zuten eta antxe jardungo zan.

Nun il zan ere esaten du: *Calle Uribarrena, n.º 6, piso bajo*. Eta eriotza zerk ekarri zion ere bai: *apoplejía* (6).

Etxean nola geldituko ziran, esan bearrik ez da: aitak berrogei ta sei urte, eta aurrak, ama-bost, amaika, zortzi eta bost urte.

Alaba zarrena, Dominika, etxeko lanak egiteko-edo geldituko zan. Andik urteetara, Bilbo'n ezkondu zan. Gizona, ango lantegi aundi bateko enkargatu omen zegoan.

Bigarren alaba, Enkarnazion, txikitatik asita, Otxandio'n bertan, Felipe Arrese Beitia euskal olerkari ospetsuaren etxean, neskame izan zan; eta gero, Portugalete'n, etxe aberats batean, *planchadora*. Etzan ezkondu.

Irugarren alabagatik, Fermina izena zuanagatik alegia, ez degu argibiderik jaso.

Semearengatik, berriz, zer kontaturik asko dago eta arekikoa gerorako utziko degu.

Leon Elkoro bertsolari oni, *Leon Kanpantxo* esaten omen zioten errian.

Ez degu uste aotik-aora plazetan-eta kantatzen zuanik; paperetan bertso jartzen zerbait saiatu bai ordea, bañan orretan ere gutxi.

Langintza orri zergatik ekin zion, berak aitortzen du bertso batean:

(6) Otxandio'ko 4'garren il-liburuan, 59 orrian.

Leon de Elkoro da
bertsu onen autoria,
Otxandiyo'ko seme
pobre errukarriya;
papeltxu onen bidez
jaten dot ogiya,
auxe bai nietzako
osasungarriya.

Alegia, gizon pobrea zan gure bertsolari au. Dirurik ez eta lanik ere ez, bear añean beintzat. Orregatik, bertso-paper jartzeari eta saltzeari ekin, familiaren bizimodua ateratzearren edo osatzearren.

Irurogei ta amasei urterekin il zan, 1919'eko Martxoaren 5'an, Otxandio'ko ospitalean. Arestian aitatutako bertso orretan, bere buruari pobre errukarria irizten zion. Itxura danez, arrazoi-paltarik etzuan. Izan zuan gaitza: *congestión cerebral* (7).

Semearrenak esaten orain asiko gera. Amairu urterekin-edo, frantziskotarretan fraile sartu zan. Mutil argia omen zan eta ikasteko asko balio zuana. Bañan bein batez sagar-arbol batetik erori eta buruan kolpe txarra artu omen zuan. Denbora-puska batean korderik gabe egon zan. Arrezkero, buruko min aundiak izaten omen zituan eta ikasteari utzi egin zion. Orregatik, etzan mezaduna izan.

Bataioko izena, Pedro, utzi eta *Fray Angel* izan zan komentuan.

(7) Otxandio'ko 4'garren il-liburuan, 257 orrian.

Txiki xamarra omen zan, bañan sendoa. Begiak, oso argi eta biziak. Eta, zartutakoan, bizar zuri ederraren jabe.

1899 urtean, beste ogei ta zortzi lagunekin, Ameriketara bialdu zuten, Peru'ra, Arequipa errira. 1900'an profesioa egin zuan. Filosofia-ikasketak utzi eta Anai izatera pasa zan. Orduan-txe izango zan sagar-arbolatik erori eta buruan kolpe txar ura artua.

1920 urtean, ostera ere España'n zan, Errioja'n, Anguziana errian.

1929'an, Jerusalem'era bialdu zuten, Illobi Santura, eta ogei ta amar urtean ango sakristau izan zan.

Urte oietan, egunkari bat idatzi zuan, berak ikusten eta ikasten zituan txeetasun guziak papereratuaz.

Bañan, urteen buruan, ango bizimoduak osasunerako onik egin ez eta 1960'an Jetsemani'ra bialdu zuten. An ere sakristau-lana egin zuan.

1965'an, larogei ta bat urterekin, Jerusalem'-go *El Salvador* komentuko gaixotegira pasa zuten.

Bertan il zan, andik amar urtera, 1975'an, larogei ta amaika urte zituala (8).

Noizean bein bada ere, opor-egunak artu eta Otxandio'ra etortzen zan. Alakoetan, errian bes-

(8) Fr. Pedro de Anasagasti: *Sacristán de la tumba de Jesús* - Fray Angel Elcoro Pujana (1884-1975), *Misiones Franciscanas* aldizkarian, 1977'eko Otsaillean.

te pamelikorik ez eta lengusu batzuen etxean izaten omen zan.

Bera etxetik oso gazterik alde egiña baitzan, bere aita nun bizi izan zan, zer bizimodu egin zuan, nola eta nun il zan eta abar, galdezka jarduten omen zan. Beraren lengusuak orrela esan digute.

Etorri berrian, euskeraz motel xamar egiten omen zuan. Bañan, joaterakoan, errikoak bezin trebe eta errez.

(1881)

BERTSO BERRIAK
(MANDAMENTUAK)

Amairu bertso auk, *Imp. de J. Busto, Bidebarrieta*, 17 moldiztegia eman ziran argitara paperetan.

Bertso-paper oietako bat Derio'n eskuetara-tu genduan. Mikel Zarate adiskidea zanak utzi zigun.

Paper orrek *Bertso Berriak* beste izenbururik ez du. Orain daukan bigarrenko ori, gerok erantsia da, saillaren gaia orixe baita.

Urtea, lenbiziko bertsoak esaten digu. Ain zuzen, len esan bezela 1843'an jaioa baitzan, ogei ta emezortzi urte zituan orduan Elkoro bertsolariak.

1. Milla zortzireon larogei eta
au da lenengo urtian,
Leon de Elkorro abiatzen da
kantadutzeko ustian,
adi erazuaz mandamentuak
Jaungoikuaren legian,
eskribituak Moises santuai
Jaunak Sinai'ko mendian.

2. Banator bada, Jesus maitia,
laguntasuna-eske Zuri,
eginbide oni jarreituteko
duña ez nazalako ni:
berba egokiak ezarri iozuz
nire ezpan eta miñari,
zeñetan ezin emon nekion
esaldi oni aurpegi.

3. Orantxe nua azaldutera
lelengo mandamentua:
Jaunak bialdu ginduzela gu
biziten desiertura,
emen maitatu biar degu guk
dalako gure jaubia,
nai ezpadogu gero betiko
infernura joatia.

4. Adin ero entenimentuan
biar kerare nekatu,
juramentu egin biar danian
guztietara begitu;
sarritan oi da gauza zuzena
okerretara biurtu,
kontu dirautzut onelanguan
gero ez dakizun damutu.

5. Irugarreneko mandamentuan
berba egitera banua:
jai-egunian artu egizu
gorputzaren deskantsua,
asmu senduaz entzun egizu
orduan meza osua,
osterantzian gertaurok dago
presondegi itzaltsua.

6. Laugarreneko mandamentuak
agintzen digu onela:
lotsa onian eruateko
gurasuaren izena.
Espiritu Santuak dino,
au da egija ziurra:
kania bera izango dala
zu neurtuko zaituna.

7. Boskarreneko mandamentuak
ondo argido dirausku:
Jaun Jangoikua gizona egiten
ugari zala nekatu,
iñor ilteko asmo gaizt'ori
ez daikazu iñoz artu,
desiatuaz beragaz bere
egiten dezu pekatu.
8. Seigarreneko mandamentuak
ari erazoten deusku:
aragiyaren bizkortasunak
daiguzala azpiratu,
loikeriyako grina gaiztuan
ez gatiala nekatu,
infenuetan Luzifer nausi
ez dezagun ezagutu.
9. Zazpigarrenko mandamentua
ostutzallaren gainian:
bakian itxi biar jakola
norberena eztanian;
besteren gauza eskuratzia
gogoratuten danian,
aztertu egizu konzienziya,
ez dau bide zuzenian.

10. Zortzigarren mandamentua
miñen oitura gaiztua:
inoren faltak argiratuten
dadukazu ekandua,
eta gañera kentzen deutzazu
entzute ero kreitua,
orretara ezin izango zara
Jesusen seme zintzua.
11. Bederatzigarren mandamentua
ezkonduaren kasua,
asi azkero ezin nei itxi (1)
esan bage errazua:
zeure emazte desanparauta
beste batena nastua,
ez da ori zuk baimenarekin
artu zenduan kargua.
12. Amargarren mandamentuak
adi erazoten digu:
Jaunak emon deuskunarekin
iya geraren kontentu;
bide bagako ondasunikan
gozatu biar ez dogu,
auzi-epalla zuzen firmiak
ezkagizan kondenadu.

(1) Bertso-paperak: *asi azkero ezin ñe itxi.*

13. Mandamentu ero amar aginduok
bai bitan sartuak dira:
geure burua legez amatuteko
projimo ero laguna;
betetasuna oni emoten
arikatuten bagara,
egunen baten izango gara
danok zeruan batera.

(1887)

BERTSO BERRIYAK
LEON DE ELKORO'K EUSKERAZ
JARRIYAK

Bertso auek, Manuel Lekuona apaiz jaunaren eskutik jaso genituan. Moldiztegi-izenik gabeko paper bat da. Egillea nor dan, izenburuak esaten digu.

Gaia, San Antonio Padua'koaren bizitza da. Urkiola'ko elizaz ere mintzatzen da. Ango beste santua, San Antonio Abad alegia, alde bat uzten du. Lenengo bertsoak onela dio:

gerratietan zelan zarian
osoro persegidua...

Ori argituko ote genduan, Benito de Vizcarra y Arana'ren *Reseña histórica del multisecular santuario de los santos Antonios de Urquiola (Vitoria, 1932)* liburua aztertu degu.

Liburu orrek dionenez, frantzesak kalte handiak egin zituzten elizan, 1808-1814'eko gerratean. Baita ostatuan ere: atea erre, ango gauza asko lapurtu, eraman eta Otxandio'n saldu.

Karlisten lenengo gerratean, 1834'eko Otsaillean, liberalen aginduz eliza eta ostatua itxi egin ziran. Soldaduak arrapaketan-eta jardun eta kalte aundi xamarrak orduan ere. 1836-1837'an, karlisten mende egon zan Urkiola, eta eliza-eta iriki egin zituzten. Bañan 1837'eko bukaera aldera, liberalak ostera ere ango jabe. 1838'eko Apirillean, santuen iduriak an goien arriskuan zeudela eta Abadiño'ko elizara jetxi ziran.

Gerra bukatu ondoan, 1842'an, eliza konpondu eta iduriak ostera gora.

Karlisten bigarren gerratean, 1872'an, errepublikako soldaduak etorri, eliza jendearentzat itxi, berak ostatutzat artu eta an egon ziran bi illabetean. Andik alde egin aurretik, kamio-bazterreko ermitari su eman eta ango San Antonioren iduria erre egin zuten.

Elkoro'k motiborik asko zuan, beraz, «gerratietan osoro persegidua» esateko.

* * *

1842'eko Iraillean, santuen iduriak ostera gora eramaterakoan, jende asko bildu zan aiei lagun egitera. Oso festa ederra izan zan. Bertsoak ere jarri ziran. Onela dio Vizcarra jaunak bere liburu orretan:

«Lamentamos no haber podido dar con algún ejemplar de la relación de aquella memorable jornada, cantada en veinte y tantos versos vascogados que a la sazón corrieron por todo el país. Pero no podemos menos de estampar aquí,

aunque fragmentariamente, algunos de aquellos versos que en la infancia aprendimos de nuestros muy queridos abuelos que los repetían alrededor de nuestra cuna:

Atara ziranian
euraren lekutik,
kabildua kantetan
inguru guztitik.
Agur egite orduan
santu aundiari,
Abadiño guztia
an zan negarlari.
Durango'ko uriya,
Izurza, Mañari,
txandia arrapetan
nor izan andari.»

Damurik, guk ere ez degu bertso oien pape-
ra iñun ere arkitu.

* * *

Berak azken bertsoan dionez, 1887 urtean ja-
rri zituan Elkoro'k bertso auk. Bertso berean,
«Urkiola'ko zelaian komendu eder bat egiten
dala» esaten du.

Bañan Vizcarra'k ez du esaten frailerik ara
ekarri eta komenturik egiteko asmorik izan za-
nik. Eta eliza berria egiteko deia ere, andik amai-
ka urtera, 1899'an, egin zuan Gazteiz'ko obis-
poak.

Oiek ez dira Elkoro'k dionarekin ongi uztar-
tzen. Dana dala, ona emen bertsoak:

KANTA AURREKUA

Manku eta errenak,
itxu eta argiyak,
guazen maitatutera
San Antoniuak,
eta orrez gañera
gexo eta sanuak,
biyotzak azkorturik
datorkuz mutuak.

1. Urkiola'ko mendi eregi
eta gañera ospetsua,
zure ganian berba egiteko
orain artzen dot asmua;
gerratietan zelan zarian
osoro persegidua,
disponiu da egitia bertan
bakezko paradisua.
2. Biar dan legez jarraituteko
neure esaldi oneri,
dura bagia izango dot nik
eskatutia Jaunari:
Antoni legez lagundu idazu
eginbide onetan niri,
euren jazoera miragarriyak
azaldu dagidazan garbi.

3. San Antonio gloriosua
Urkiola'ko mendian,
baita bere lagun maitia
daduko aldamenian,
atxen ondoko zelai batian,
eleiza polit batian;
euren entzute goratu ederra
daduke mundu guztiyan.

4. Santu bi onek izan zirian
estranjeruak jaiotzaz;
euren birtute neurri bagiak
ebizelako Jangoikuaz,
urriñetati etorten dira
euren belaun billostuakaz,
euskal errietan maitatzen dira
atsegin eta alabantzaz.

5. San Antonio txikitxutati
izan zan txito zoliya,
fralle eñ azkero Afrika aldian
ei eban misiño aldiya;
denpora atan zelan egoan
erri atan jente nasaia,
elezia ezin zan bete
egiñik pulpituti deia.

6. Misioneru jangoikozku au
 juan zan itxas-bazterrera,
 abiatu zan sermoa eder bat
 arrañari egitera;
 eta arrañak izioturik
 sermoi ori entzutera,
 uren gañian euren belarriyak
 agiriyan zituela.
7. Batzuek baño ezpada bere
 juan ziran entzutera,
 arri eginik geratu ziran
 ikusiyaz beste baga;
 euren arteti laster zirian
 erriyan parte emotera:
 «Erdue arin, bai, ikustera
 itxasuen gertau dana.»
8. Itxasuaren edertasunak
 alimaturik jentia,
 biyaramonian bete izan zan
 plen-plenian eleizia;
 ezaguturik afrikanuak
 oiñ egin dabe eskia,
 orretarako libre daduke
 franziskanuak kintia.

9. Andiki edo kaballero
eregi batzuen gisara,
demoniñoak presentau jakozan
San Antonioi aurrera:
ezkontza eder bat egin biar zala
beragaz iñundi al bada,
«dama onegaz ezkontzen bazâ
errege izango zara.»
10. Nekez baño ezpada bere
emo'ebanian berbia,
bengo-benguan presentau jaken
martxie artzeko kotxia;
kotxe orretan sartu zirian
juateko danak batera,
allegau ziran jauregi ero
palaziyo eder batera.
11. Etxe orretara igo ebeenian
sala polit eder batera,
ijiji ajaja asi jakozan
damiaz pekatu eragitera;
orduentez gonbutau eban
demoniñuak zirana:
«Ken zakidaze aurretik eta
noian ni neure tokira.»

12. Berba onek amaitu eta
andi lasterrian
trumoa baten gisa
danak juan ziran.
«Jauregian nintzana
nago basamortuan»,
otsotegi itzal bat
besterik ez eguan.
13. Geure euskera maite zintzua
iya dago usteldurik,
orregaitikan obispo jaunak
dauko ondo pentsaturik,
Kristuen soldau egiazkuak
Urkiola'ra bialdurik,
euskeriaren usain gozua
izan derin zabaldurik.
14. Milla zortzireun larogei eta
au da zazpigarren urtian,
Leon de Elkorok ipini ditu
bertsuok paper onetan;
mundu guztiya aurkituten da
kontentu atsegiñetan,
komentu eder bat eiten dalako
Urkiola'ko zelaian.

BERTSO BERRIYAK

SAN MARTIN DE LOINAZ'EN GAÑIAN LEON DE ELKORO'K JARRIYAK

Bertso auek, *Azpeitia: Imp. de P.M.* moldiztegiak atera zituan. *P.M.* izkiak, Pablo Martínez'en izen-abizenak gordetzen dituzte. Amai-ka bertso-paper argitaratutako etxea.

Bertso-paper ori, Derio'n arkitu genduan, Mikel Zarate adiskidea zanaren eskutik.

Kopia bat, berriz, Lazkao'ko fraileak dute. Makinaz eta itzez-itz idatzita dago. Alegia, orduko ortografia, eta utsegiñak ere, errespeta-tuz. Eta bukaeran: *Azpeitia: Imp. de P.M.* Iturri beretik datozen urak, beraz.

Len esan bezela, Elkoro au nungotarra zan, sail ontako azken bertsoak esaten digu. Ari-muturra bezela izan degu argibide ori, aren bizi-tzaren matasa ateratzeko.

Lenengo bertsoak dionez, Beasain eta Ber-gara, ainbeste urtean auzitan ibilli ondoren, Loi-

naz Beasain'go lurtean jaioa zala noizbait ere erabaki da. Bide ematen digu orrek, bertso auek noiztsu jarriak diran barrundatzeko.

Liburuak diotenez, Erroma'ko *Congregación de Ritos* izenekoak, iru bider itzegin zuan San Martin Beasain'go semetzat emanik: 1867, 1869 eta 1872'an. Azken urte ori ezkeroz jarritako bertsoak, beraz. Elkoro, 1843'an jaioa baitzan, aurreko bi urteetan baño jantziagoa zegoan, bertso-langintzarako.

1. Beasain de Bergara
ainbeste urtian
auzietan ibilli dira
San Martinen gañian;
erabaki da noizbait
egunen batian
Loinaz jaio zala
Beasain'go lurrian.
2. San Martin de Loinaz
Beasain'go semia,
egun onetan itxaroten dot
zu alabatzia;
ez da orretarako
nire al izatia,
lagundu egirazu,
martire maitia.

3. Gizaseme ona zan
txiki-txikitati,
gurasuak azi eben
ondo semi ori;
gero esturiyuak
Alcalá'n ikasi,
aurrerantza nai eban
munduari itxi.

4. Fraille sartu izan zan
komentu batera,
Aita San Franziskuen
seme izatera;
andik laster juan zan
salbajietara,
relijiño santua
predikatutzera.

5. Japon esaten deuten
probentziya baten,
asi zan dotriña
zuzen esplikatzen;
governadore jauna
sano asarratu zen,
joan zan gizonakin
Martin preso artzen.

6. Soka sendo bategaz
besuak loturik,
arrastaka eraman eben
errime nekaturik;
ez eban iñoz egin
ez berak negarrik,
emon eutsen azote
arrigarriyagatik.
7. Atzamarrak puskatu,
belarriyak moztu,
onela egin eben
jentillak penatu;
lantzazoka gorputza
osoro urratu,
zenek onen minalak
zuzen esplikatu?
8. Nangosaki deritxakon
ziudare baten,
arpoiakaz josirik
il zan kurutze baten;
mutiltxo biyakgaitik
berak esa'eutsen:
«Lenengo il zizuez
billurtu ez daitezen.»

9. Antonio eta Luis
governadorien semiak,
aiten erakutsiyaz
jentillak zirian;
elez-gizon bategaz
zuzendu zirian,
marteriyue artzen
batera zirian.
10. Ai ze gauza ona dan
erakusla ona,
gurasuak itxirik
juan ziran beragana,
biyotzak ifinirik
Jangoikuagana,
kurutzian iltera
Kristoren gisara.
11. Gobernadore jaunak
artu eban tristezia,
negarretan urturik
bere emaztia,
euren seme ederrak
alan ikustia,
oso gogortuak ziran
zarra zein gaztia.

12. Batak amaika urte ta
bestiak amairu,
euren eskrituetan
alan ikusten dogu;
ikasbide onetan
etziran aspertu,
aingeru ein azkero
egin ziran santu.

13. Martinek ikusirik
mutiltxuen pague,
jentillai esa'etsen:
«Emen naukazue,
zeuek nai dozuena
egin daikazue.»
Ber-bertatik santu au
emen il doskue.

14. Maitatu biar degu
Jauna jente guztiyak,
adi erazoten deusku
gaurko berba aldiyak;
amatu biar dogu
erritar guztiyak,
ontzat artu daigula
Jaungoiko aundiyak.

15. Salmu onen bitartez
azkenengo berbetan
irureunen bat salbaje
konbertiu ziran;
infernutar izateko
aurkituten ziran,
an dagoz zeruetan
gloriya gozetan.

16. Martiri au izan zan
txit erakuslia,
ebillen erakusten
zerura bidia;
alan idago eban
bere denporia,
orain gozatzen dago
eterniraria.

17. Bizitzaik pasau bage
asi naz onetan,
utsak izango dira
zortziko orretan;
nekatu naz ugari
esaldi onetan,
ez dot diruik gastatu
ikesten orretan.

18. Papel onetan dagoz
ogei bertso berri,
kantu-zale danentzat
diranak egoki;
San Martinen bizitza
nai b'ozu ikasi,
txanpon bat pagatzia
ez karu eretxi.
19. Amaitutera nua
ni orain kantua,
enganua dala esanaz
guretzat mundua;
egiten badogu emen
bizitza santua,
irabaziko degu
betiko zerua.
20. Leon de Elkoro da
bertsu onen autoria,
Otxandiyo'ko seme
pobre errukarriya;
papeltxu onen bidez
jaten dot ogiya,
auxe bai nietzako
osasungarriya.

MANUEL ANTONIO LEUNDA ARRUTI
(1846-1940)

MANUEL ANTONIO LEUNDA ARRUTI
(1846-1940)

Zarautz'ko Manuel Antonio Leunda Arruti bertsolariaren gurasoak, Antonio Maria Leunda eta Frantziska Arruti izan ziran, biak zarautz-tarrak.

Aiton-amonak, amaren aldetik: Alejandro Leunda, zarautztarra, eta Maria Josefa Makazaga, arruatarra. Amaren aldetik: Migel Arruti eta Maria Inazia Lizaso, biak Laurkiñ'ekoak (1).

Seme-alaba auek izan zituzten: Juana Inazia, 1838.X.31'an jaioa; Josefa Luisa, 1843.XI.9'an; Manuel Antonio Remijio, 1846.IX.30'an; Timoteo, 1849.VIII.21'an; Felipe, 1852.IX.12'an; eta Antonia, 1856.I.17'an (2).

Bi arreba, gazterik il ziran: Josefa Luisa, 1844.VIII.21'an, urte betea osatu gabe; eta Jua-

(1) Zarautz'ko 6'garren bataio-liburuan, 205 orrian.

(2) Zarautz'ko 6'garren bataio-liburuan, 137, 182, 205, 224, 250 et 277 orrietan.

na Inazia, danetan zarrena, emezortzi urterekin, 1857.IV.5'an (3).

Gazteena, Antonia, Zarautz'ko Eladio Arruti'rekin ezkondua, ogei ta amairu urterekin il zan, 1889.VII.22'an, *meningitis aguda* gaitzak jota (4).

Esan bezela, irugarren senidea, Manuel Antonio, bertsolari izan zan. Ez erriz-erri ibilli eta plazetan kantatzen duten oietakoa. Bai ordea lagun artean, sagardotegietan-eta, jarduten zana. Bera gelditu zan etxerako; Etxetxiki'rako alegia.

Ezkondu, 1877'eko Apirillaren 3'an egin zan, ogei ta amar urterekin. Andregaia: Inozentzia Aginaga, zarautzitarra berau ere, ogei ta zazpi urtekoa (5).

Lau seme-alaba izan zituzten: Maria Pilar, 1878.X.12'an jaioa; Antonio Mari, 1881.I.12'an; Santos, 1883.VIII.9'an; eta Kandida, 1888.VI.6'an (6).

Bigarren senidea, Antonio Mari, gelditu zan etxerako. Zarautz'ko kalean jaio baiñan Añorbe baserrian azi ta bizi zan Maria Eizagirre Lope-tegi'rekin ezkondu zan. Seme-alaba auek izan zituzten: Manuel; Joxe; Maurizio, txikitan illa;

(3) Zarautzko 4'garren il-liburuan, 40 eta 85 orrietan.

(4) Zarautz'ko 5'garren il-liburuan, 89 orrian.

(5) Zarautz'ko 6'garren ezkontza-liburuan, 159 orrian.

(6) Zarautz'ko 7'garren bataio-liburuan, 150 eta 169 orrietan; 8'garren liburuan 9 eta 87 orrietan.

Santos; Anjelita, 1919'eko gripearekin illa; Kandida, gaztetan kamioetako ezbear batez illa; Maria eta Antonia, bixkiak; Pilar, Esteban eta Antonio.

Senide oietako bi, Manuel eta Santos, aitona Manuel Antoniorekin urte askoan bizi izan ziran. Irakurleak ikusiko duanez, orri-alde auek berai zor diete geien-geiena. Makiña bat gertaera eta bertso eman digute. Bañan oiek gerorako geldituko dira. Orain, Zarautz'ko eliz-artxiboan bilduak emango ditugu.

Manuel Antonioren andrea, berrogei ta emeretzi urterekin il zan, 1909'eko Ilbeltzaren 11'an (7).

Manuel Antoniok, berriz, oso mundu-aldi luzea arrapatu zuan; 1940'eko Abuztuaren 5'an il baitzan, ia larogei eta amalau urterekin (8).

Famili onen bizi-lekua, esan bezela, Zarautz'ko Etxetxiki baserria zan. Baserri ori Iñurritza ballaran dago, San Pelaio'ko ermitaren ondoan.

Etxetxiki, borda xar bat izan omen zan lenbizi. Elurtea zanean, beorak ara jeixten ziran menditik. San Pelaio'ko ballara ori lau etxe izango zan. Ori, berriz, beorren gordelekua. Gero egin zan baserri.

Seguru aski, an bizi izaten asi ziranak, Manuel Antonioren gurasoak izango ziran. Eta ondorengo guziak, izendatu ditugun belaunaldi oiek danak alegia, bertan jaiioak.

(7) Zarautz'ko 7'garren il-liburuan, 166 orrian.

(8) Zarautz'ko 8'garren il-liburuan, 191 orrian.

Manuel Antonioren ama, Frantziska Arruti ori alegia, larogei ta amaika urterekin il zan, 1906'eko Ilbeltzaren 31'an (9).

Frantziska orretzaz, beraren billoba Santos Leunda'k onela esan digu:

«Il zaneko gaixo-aldian, larogei ta amaika urte beteak zeuzkan, eta ondo etzegoala eta medikua ekarri zuten. Etorri, dana begiratu eta ezer billatzen ez:

— Ez dizut ba ezer billatzen, zardadea besterik.

Eta amonak erantzuna:

— Neri ezer billatzen ez didan medikua, bada-ezpadakoa. Etorri ez eta ere, berdin da.

Amona orri, Etxetxiki'ko letraua edo eskribaua edo ez dakit zer esaten zioten. Marimando oietakoa edo jakintsua izan bear zuan. Silla aundian exeri eta an egoten omen zan, atarian jarrita. Inguruko konpondu-eziñak konpontzera eta famelietako pakea egitera, bera joaten zan.»

Argibide auek, esan bezela, Santos Leunda'ri jasoak ditugu. Bera izan degu berri-emalerik opa-roena. Orregatik, irakurlea jakiñaren gañean jarri nai degu: besterik abixatzen ez bada, kaketxen artean, *comillas* tartean dagoan guzia, beraren aotik artua da.

(9) Zarautz'ko 6'garren il-liburuan, 215 orrian.

GERRATEA

«Gerra asi eta iru anaiak etxean, eta illuntze batean sukaldean alkarri:

— Amar erreal ematen omen ditek beltzetan eta obe diagu ara joan.

Aitak eta amak oetik entzun eta bat kamisa utsik eta bestea alkandora utsik jetxi eta:

— Zer esaten ari zeraten ba al dakizute? Erljioaren kontrakoa da zera ori. Kontu gero pausorik alde ortara!

Eta, ala, karlistetara joan ziran.

Anai bat, Timoteo, Oiartzun'go atakean il zan. Bestea, Felipe, Frantzia'ra joan omen zan, gerra bukatutakoan. Eta an bizimodua nolabaiteko xamarra, eta onera etorri eta petxutik il omen zan etxean, Etxetxiki'n.

Konfesatzeko trantzea etorri eta lan oietan oztua. Eta anaiak, gure aitonak, esan zion:

— Aizak: amaren zerarako bada ere egin zak.

— Konfesatuko nauk, ba.

Ekarri dute apaiz bat, Don Felipe edo ez dakit nola izango zan, bañan arekin konfiantza pixka bat eta arekin egin zun.

Ain juxtu, Prantzaesanean, Saustiñenea'n obeto esateko, alboko baserrian, amona il angoa. Eta amak, andik etorri eta:

— Aizak: Saustiñene'ko zera oraintxe il dek.

Mari Joxepa edo ez dakit nola izango zan. Eta aitonaren anai orrek:

— Uste det bidean arrapatuko detela.

Eta andik bi ordu baño len il omen zan bera.

Gure aitona ere eritu zuten gerran. Ez nizuke esango zein frentetan; orixe ez daukat gogoan. Lepo ondoan zun marka, balazoarena.

Ketari'ko soldadu batena ere kontatzen zun. Alkarrekin konpañi batean zebiltzan.

Kapitana gaiztoa zuten eta, pixka bat uzkur egin zulako, sablaoa eman ketariarrari.

Urrengo atakean-edo, erori erituta edo min artuta kapitan ori, eta orduan deika:

— Eldu, Ketari! Eldu, Ketari!

Eta ketariarrak:

— Orain izor ari.

Bañan bizirik atera eta sendatu kapitan ori, eta, berriz konpañira etorri zanean, bere artean pentsatzen omen zun mutil orrek:

— Oraintxe garbituko natxiok.

Bañan ez omen zion kastigurik eta ezer ere eman; esan ere ez.

Beste gertaera bat ere kontatzen zun. Iturriotz'etik etorri oñez ama bixitatzera, gabea, illundu eta gero andik abituta. Eta amak:

— Ai, motell! Ez adi emen gaberako gelditu, ixpia asko zebillek eta. Joan adi izekoagana, Agerre-berri'ra, eta egin zak lo an.

Joan eta izekoa ere etzala atrebitzen:

— Emen ere ixpia ugari zebillek.

Koltxoi xar bat eman etxean eta erreten batean lo egin. Eguna baño len jeiki, zeozer artu, eta, ez dakit zer ordutarako, Iturriotz'era.

Barko bat, alemana izan bear zun, itxas aundiarekin baztertu Ketari'ra. Bañan amarrak eten eta orrera bota itxasoak, Zarautz'ko plaiaren bukaeran, Aitz-legun esaten dioten ortan. Itxasoan nola sartzen da ibai koxkor bat, mendi orren barrenean, Mollarri baño len? Ortxe.

Aitonak esaten zun, barko ortan lenbiziko bera sartu zala. Eta itxas-orratza, *brújula* izango zan, eta zerrote bat ekarri zitula etxera, andik artuta. Zerrote ura oraindik urte gutxi gure etxean zan.

Eta batek puska bat kendu, eta besteak bestea, bertan desegindu zala barko ori.

Ni neuk ezagutu det barko orren ondoa. Itxasoak bi metroko goraldiak izaten ditu ondarrarekin, eta urrena ondarra bi metro igual bajatu or askotan, eta orduan agertu.

Eta akordatzen naiz, eraman-aldietan emengo jendea nola joaten zan aizkorakin eta gurdiakinda, eta *di-da di-da*, egurra etxerako.

Gaur ere, urte erdi batean ez da ikusiko. Bañan alako batean, kostillen egur-muturrak, ondo-ondoko puskak, or agertzen dira.

Karlista gerratean esaten zun arek ori gertatua. Beste bi anai joaten ziranean, irugarrena libre zan orduan ere, azken gerratean ala izan zanda. Eta beste bi anaiak an zebiltzala eta bera etxera etorri. Eta orduan barko orrena gertatu.»

* * *

Zarautz'ko eliz-artxiboan agertu danez, Felipe 1891.X.1'an il zan, arratsaldeko zazpi t'erdietan, Etxetxiki baserrian, elizakoak artuta. Ezkongai zegoan. Ogibidea: arotza. Gaitza: *tuberculosis pulmonar* (1).

Beraren billoba Santosek esan digunez, auzoko amona bat egun berean il zan. Eliz-artxiboan azaldu danez, amona ez; aitona il zan: Martin Frantzisko Sarasola Arzeluz, aiarra, nekazaria, alarguna, Iñurritza'ko Saustiñenea'n bizi zana, irurogei ta bederatzi urterekin, 1891.XI.1'an, goizeko amaiketean, perlesiak jota (2).

Amona edo aitona izan berdin zaio noski, gañontzeko txeetasunak batera datoz eta.

(1) Zarautz'ko 5'garren il-liburuan, 152 orrian.

(2) Zarautz'ko 5'garren il-liburuan, 151 orrian.

ETXEKO ERRENTA

«Arek esan oi zun, goizean emendik irten goiz aldera, ordu bietan-edo, eta bederatzietarako Tolosa'ra joaten zala, etxeke errenta pagatu bear zunean. Orain eun urte etzan emen trenikan eta ezer ere, eta bide guzia oñez. Bañan urte batean eta bian ez; askotan joango zan.

Emen autopista ondotik sartu eta Soasu'ra irten, eta andik gora Aia'ra sartu dudik gabe, eta Asteasu'tik barrena edo nik ez dakit nundikan, Tolosa'ra.

Ni neu ibillia naiz bide ortan betik gora. Bide estrata, galtzara, arri zerakin egiña, sasiak artuta ezagutu genduan guk baña. Oraindik ere egongo dira mendi oietan bide zar oiek.

Eta nagusia Ataun'goa, eta Ataun'dik Tolosa'ra ura diru-billa. Alkarrekin bazkaldu-edo egingo zuten zer edo zer, dudik gabe, juntatu ezkeru, orain aña etzan beintzat kostako-ta.

Guri bein baño geiagotan kontatua ori. Bañan arek esaten zun, ogei ta amar duro edo be-

rrogei edo ez dakit zer izaten zun, eta aiek txalekako patrikan sartu eta eskua, ezkerra, gañean jarri; eta itxasoak biribildutako kostako arri oietako bat galtzetako patrikan, eta beste eskua an sartu, eta orrela joaten zala bide guzian.

Eta guk, toreatzeagatik, galdetzen genion:

— Aitona: bidean norbait aurrera aterako zitzaion bildurrez joango zan ba...

Eta arek:

— Ni bildurrez? Nik arri ura patrikan neukala, larri ibilli bearko zun. An botako nun, nere aurrera ura kentzera zetorrena.

Beste ibillaldi bat ere jakiñekoa izaten zun. Baita zartu ta gero ere.

Urtero-urtero, San Migeletan, Laurkiña joaten zan. Bere ama edo amona-edo angoa zula eta oitura ori zun. Urtebetetzeak ere uste det orduan zitula berak; San Migel aldean.

Oñez noski ara ere. Tolosa'raño baño erre-zago. Bide berean dago gañera.»

AARI-JOKOA

«Berazadi'ren tela-fabrikan lan egiten zun aitonak eta aari-jokoa asko gustatzen zitzaion. Eta tallerrean, ez dakit zenbat lagun izango ziran, esan dute:

— Gaur arratsaldean Orio'n aari-jokoa dek, eta jai artu eta ara joan bear diagu, Manuel Antonio.

— Ez; nik ez daukat joaterik. Andrea eta...

— Motell, motell, egingo diagu andrearena.

— Ez dek erreza izango. Nola?

— Ik bazkaltzen dekenean, komonean-edo gorde adi, eta ordu bata inguruan gu joango gaituk eta galdetuko diagu: Nun da Manuel Antonio?

Ala, aitona, bazkaldu dunean-edo, joan da komonera edo aitzeki ortan dago. Etorri dira beste lagun oiek eta:

— Eup!

— Zuek emen? Zer dezute?

— Nun da Manuel Antonio?

— Ez dakit ba. Bazkaldu du eta ertena izango da.

— Ez degu bidean billatu. Emen bearko du izan.

Orduan andrea deika asi da:

— Manuel Antonioooo!!!

Eta or ageri da gerrikoa lotu eziñik:

— Zer degu? Orain ere ba al da zerbait?

— Emen gizon batzuk.

— Zer degu ba?

— Zerara joan bear diagu: aari-jokoa ikus-tera.

— Tira, tira! Alde egin zazute emendik! Aari-jokora joango gaituk, andrea eta lana lagata!

— Bai, gizona, bai. Egun bat egun bat da eta joan egin bear diagu.

Eta andreak orduan:

— Gizona, etorri zaizkizun kasoan, segi zazu egun bategatikan.

Nik aitonari berari aditua da ori. Bazekiten, bai, aurretik gauzak ederki preparatzen. Bestela izan baldin bazan: «Nik joan egin bear det», bai zera. Andrea erritan asiko zitzaion: «Eguna galdu bear al degu gaur ere, zu zeralako?» Bañan kanpotik gizonak etortzean, berak joateko esan.»

ERLOJUA

«Polita da au ere. Emengo trenbidea egiten asi ziranean, etxean dirua bear eta gure aita pintxe asi zan. Ura ekarri eta enkargoak egin eta ola.

Eta, bide ori bukatu eta Donosti'rako tren jarri zanean, egin zuten bera guarda izendatu.

Bañan artean erlojurik ez etxean eta goizeko bostetan irten bear trenbidera.

— *Bueno* —esan omen zion aitonak—; ik lo egin zak lasai eta nik deituko diat.

Ala, aitonak bere lo-aldia egin eta jeiki; eguna argitu gabe egongo zan eta tipi-tapa San Prantziskoraño joan pralletara; an erlojuari beitu eta goizeko ordubiak artean.

Atzera etxera; egon denbora pasa eta gutxi gorabera aitari deitu:

— Motell, onezkero bostak or nunbait dituk eta segi zak serbizioa egitera.

Emendik pralletaraño joan egin bear da gero goizeko ordu bietan, erlojua begiratzera. Orduan orrela sakrifikatzen edo zeratzen zan jendea.

Orrela ezin zitekeala eta orduan ekarri zuten lenbiziko erlojua Etxetxiki'ra.

Nik ere ogei ta amasei urte pasa ditut goizeko lauretan jeikiz, bost ordu gabeen lo eginda, trenbideko serbizioa egiteko. Esku batean parol zarra olioakin eta bestean bastoia. Tunelean egunero atzera-aurrera goizean eta beste atzera-aurrera illuntzean.

Bañan beti ondo, fuerte, goizeko aize preskoa artuaz. Makiña bat bider zozoen eta birigarroen kanta ederrik aditu. Orio'ko Altxerri zuzian Aia'ko goizeko bostak entzun ere bai askotan.

Disgustu ederrak ere bai batzutan, ildakoak billatuta trenbidean. Eta bakarrik, eta tristea da ori. Ogei eta sei-edo, ez nituan nik danak billatu bañan, badira ni asi ezkerro trenak arrapatuak.»

GANBARAKO DIRUA

«Gure aita zanak orduan ume asko eta jorna-
la badakizu trenbidekoa zer izango zan: justua,
eta beti osatu eziñik. Ez omen zun sobrerik
etxean izan bizitza guzian.

Jeneralean baserrietan oitura dan bezela, gan-
baran egiten gendun San Pelaiotan bazkaria. Gu-
rea gañera etxe xarra eta aurreko egunetan ama
rist-rast erratsarekin armiarmak kentzen asi gan-
baran, tellatupeko solibo eta kapirio tartean, eta,
xirri-xarra an zebillela, papela erori. Zer ote?
Eta dirua. Ogei ta amar duro edo berrogei edo
ez dakit zenbat.

Amaren poza! Dirua! Arek ezin ba ixilik
egon. Gizona etorri zanean, esan zion:

— Au billatu det.

Eta aitak:

— Nereak dira oiek.

— Zureak?

— Bai; nik kintzena osoa entregatzen dizut,
bañan *salidak* neretzat gorde.

An falta egiten eta Donostia'ra eramaten zuten batzutan, eta *salida* bi pezeta-edo izango zan. Lan-tokitik kanpora joaten zalako, zerbait geiago.

Eta arek egingo zun kintzena oso-osea andreari entregatu zintzo. Entregatu bearko gañera, aziko bagiña. Eta beste ori patrikarako gorde. Bañan patrikan gorde ezkeru andreak billatu igual, eta sakapean izkutatu.

Bañan aitonari ere esan diote eta arek:

— Nereak dira oiek; nik ez dakit noiz gordetakoak.

Eta batek gordeak eta besteak gordeak, batena zala eta bestearena zala, ango festa. Bañan amak bereganatua diru ori, eta eukiko zun, bai, nun empleatu.

Bañan olaxe izaten dira gauzak: aitak an gordetzen dirua, eta aitonak ere noiz edo noiz ori bera egiten oitura izan.»

ETXEBELTZ'EKO SAGARDOTEGIA

«Osaba Santos, nere aitajauna, oso gizon fuertea zan. Estropadetan ere onenetakoa. Itxasoan ibiltzen zan eta itxasora joateko udaberriaren zai egoten ziran. Eta urrengo astean-edo asi bearko zutela eta esan du osaba orrek:

— Ni itxasora joaterako, egurra ekarri bear degu.

Aixia baserria bada emen, basoa gañean dula, eta andik ekartzen zuten.

Bañan astelena zan eta amaiketakoa ondo eginda etorria izango zan osaba ori.

Ala, joan dira. Arbolaren puntara igo da nere aitajaun ori, bañan aitonari kezka jarri:

— Min artu bear zidak neri onek, pixka bat kirrikan zegok-eta.

Eta Etxebeltz beste baserri ortan sagardotegia egoten zan, eta bezperan noski andik alegre etorriak izango ziran, eta goiz artan ere larri ibilli, eta aitonak bere semeari:

— Aizak: sagardo ederra zegok izugarri Etxebeltz'en, eta ez al gaituk araxe joango? Emen min artuta baño obe izango diagu.

Ala, egurra botatzea laga, sagardotegira joan, biak bete-bete egin eta alkarri bertsoan. Andik etxera gero. Bañan aitonari onik ez sagardoak. Tratu txarra artu omen zun oso, gonbitoka asita.

Barriño aundi bat jarri omen zion aurrean gure osaba orrek —amak kontatzen zidan neri—, eta burutik eldu eta esaten zion:

— Bota, aita! Lasai bota!

Eta aitonak:

— Laga idak, motell, gaizki natxiok eta.

Eta osabak berriz ere:

— Bota lasai! Bota lasai!

Eta Joxe gureari, orain Donostia'n bizi dan anai orreri, onela esaten zion:

— Ederki zegok aitona. Gonbito puxka bat botatzen dik, bañan ez dik ezer.

Eta aita, trenbidean lur-jauzia eta ara joan eta etxeratu gabea. Eta beiak goseak eta marruka. Eta amak beiai:

— Zuek ere egon lasai. Ekarriko dizuegu jatekoa, edo Sataneko zulotik edo Santa Barbara'ko puntatik.

Sataneko zuloa, Mollarri azpian dago, Orio aldera. Santa Barbara, berriz, kaxko batean, Kertari aldera.»

BILLOBAK

Orain baño mariñel geiago izaten zan garai aietan Zarautz'en. Gure anaia ere ala izan zan, anai zarrena, Manuel.

Arek, amar urtetatik-edo asi eta soldaduzkara joan arte, ez dakit zenbat udaberri paseak zitun itxasoan.

Txalupak onera ekartzen zituzten neguan. Txalupa-lekua or bertan ezagutu nun nik, autopista baño onuntzago.

Baporea, berriz, Ketaria'n lagatzen zuten, Zarautz'en tokirik ez-ta. Eta goizean, lauretan-edo jeiki, edo ordu bietan igual, eta Ketari'ra. Oñez eta ankutsik joaten ziran, etxetik jana edo zera artuta.

Penosoa izaten zan orduko arrantzaleen bizitza. Errukarria.

Emen arrantzale asko zan orduan. Arrantza eta nekazaritza besterik etzan.

Ordeka aukerik ere, orain fabrika eta etxe aundi oiek dauden tokietan eta beste danetan, artoa

eta babarruna ezagutu nitun nik. Emen arto asko egiten zan garai batean.

Bañan, atxurrarekin joka asi ezkerro, metro erdi bat baño lenago, kostako ondarra ateratzen da. Eta ortxe, laura edo lau t'erdira, ura.

Ur ona, geza. Ez dula iturrikoak bezelako gozotasun ori. Garbantzuak-eta ez ditu egosten ondo. Bañan edan, makiña bat bider edanak gaude gu. Ortxe gendun ur-putzua, etxe ondoan, eta ortikan.

Eta gure anai Manuel ori, soldadu joan aurretik, neguan-eta, itxasorako girorik etzanean, baserrian aitonari laguntzen beti, aita trenbidean izaten zan-da.

Anai orrek afizio pixka bat bazun bertsoarako, eta ondo xamar zeratzen zitun orduan lagun-artean-eta.

Eta batzutan, laitan eta olako lanetan ari ziralara, alkarri bertsoetan eta puntutan jarduten ziran aitona eta biak.

Bañan gaiztoa izan anai ori eta parra egin bear, eta, irurak laitan ari giñan batean, onela esan zidan bajutik:

— I: aitona tentatu bear diagu.

Eta bi pezetako bat atera patrikatik eta jarri an, zuloan, eta:

— Orain ere zezeren brilloa pasa da zera ortan, aurreko zotal ortan.

— Bai zera.

— Baietz, aitona; pasa da or zerbait ere brilloarekin.

— Motell, denbora galtzeko badek ik beti olako zera bat.

— Baietz, pasa dala.

— Etorri adi, ba, eta atxurrarekin ken zak zotal ori atzera.

Eta arek, jiratutako zotala atzera bota eta bi pezetakoa.

Aitonak orduan:

— A, madarikatua! Nik baño bista ohea daukak, motell.

Gero, soldaduzkatik etorri ondoren, itxasoia laga eta panadero asi zan Manuel ori.

Ortxe, ordu biak aldean, etortzen zan lane-tikan, amaiketakoa eginda.

Gu bazkaldu eta sorora edo norabait joanak, eta aitona bakarrik etxean. Ordurako zartua, ia larogei ta amar urte-edo.

Manuel orrek, beti ere umore onekoa izan da eta aitonari:

— Kaixo, aitona!

Eta bazkaldu eta alkarri puntua jarri eta bertsotan igual aitona eta biak sukaldean, eta gero lotara gure anai ori.

Panaderoak jeneralean egarbera izaten dira, iriñarekin eta beroarekin eztarria zakartu-edo egiten zaie-ta.

Eta, arratsaldeko bostak edo seirak aldean, aitonak esaten zun:

— Onezkero, ederki egarritua egongo da ba gure mutilla.

Iturria etxearen kontra gendun, Etxetxiki ortan, eta makiña bat bider antuxune aundiarekin joan, an urez bete eta oera joaten zitzaion anaiari:

— Ara emen ura eta edan zak.

Eta besteak estimatu egiten zion:

— Bejondeizula, aitona. Eskerrik asko.

Eta artu, edan eta segi lotan.

Ni ere amaika bat urteko asi nintzan lanean, eta aitona zartua. Arratsaldeko irurak baño len asiko nintzan:

— Aitona, gaur ez al degu ba meriendatu bear-edo?

— Dagoneko meriendatu? Etorri berriak gaituk-eta.

— Bai zera. Aspaldi etorriak gera. Sail aundia egin degu.

— *Bueno*, meriendatu egingo diagu ba.

Eta lau t'erdietarako, nik ere jolaserako gogo geiago noski eta:

— Onezkero obe degu etxera egun argitan joatea, aitona.

— Motell, egin bearko diagu ba ire esan ori ere.

Eta beti illuntzean ura oera. Goizean lauetarako igual jeikiko zan, naiko lo eginda gañera. Oso zan zuzena lotarako orduetan. Oera goiz beti ura.

Negu-partean batez ere. Garai aietan oso argi txarrak izaten baitziran. Gure etxean petro-

leoa ezagutu nun nik lenbiziko, eta gero kandelak. Elekrika ekarri eta zeratu zanerako, mutil dezentea nintzan ni.

Eta neguko gau askotan, joan, sartu eta oia berotu egiten nion. Galtzak eta guzi sartuko nintzan, dudik gabe. Abarkak bakarrik kenduko nitun. Aitonaren estufa ni nintzan. Egon pixka batean, jolasera erteteko presa izaten nun-da, eta esaten nion:

— Ea, aitona, etorri.

Eta ura oera eta ni kanpora jolasera. Gero, naiko jolas egin eta apaltzen nunean, berriz ere aitonaren ondora, berarekin lo egiten nun eta. Orduan, bai, galtzak-eta kentzen nitun.

Beso oneko gizona zan. Egundoko atzaparrak arek. Aundiak eta indartsuak. Puntan pelotan jokatzen ere ona, aditu izan det, gaztetan. Aritzen zana omen zan beintzat.

Beso azpitik arria tiratzen ere oso ona. Ni besagaiñetik bezin ona ura azpitikan, larogei urterekin ere. Makiña bat bider ikusia nago, kanalean *yi-yi-yi* batetikan bestera, arek botatako arria.

Sagardo-edalea zan. Asko gustatzen zitzaion. Tokan ere oso ona esaten zuten zala. Jai-arratsaldeetan, xentimorik gastatu gabe naiko sagardoa edaten zula esaten zun berak. Tokan *tan-tan-tan*, eta erronda beti libre arek.

Meriendatzeko, sagardoaren aitu-aldietan, ur ardoa edaten zun.

Ardoa, berriz, etzan ia larogei urtera arte edaten asi.

Gerratik etorri nintzanean, ordurako larogei eta amairu urte arek eta bizarra nik ebaten nion labanarekin. Eta geldirik egoteagatik, baso aundi bat ardo erdia bete eta ematen nion:

— Artu ardoa, aitona.

Ardoak nunbait piztu edo berotu egiten zun ba. Eta esaten zun:

— Edango diat ba.

Eta baso ardoa eskuan artu eta:

— *Venga, moreno* —esaten zun.

Nik orduan esaten nion:

— Bukatzen degunean, geldirik egoten bazera, beste erdia emango dizut.

Eta geldi-geldi egoten zan.»

BERTSO BERRIYAK

BERE KATUARI LEUNDA'K JARRIYAK

«Katu gaixua maitia nuen» esango digu Manuel Antoniok bertso auetan. Bañan egun batean etxetik falta eta iñun ageri ez katu ori. Azkenean, burua, anakak eta larrua kaño-zulo batean azaldu. Eta, penak eraginda, bertso auek jarri zituan orduan Leunda'k.

Gertaera ola izan zala, bertsoetatik bakarrik garbi ageri da. Bañan Manuel Antonioren billoben aotik beste argibide gogoangarri batzuk bildu ditugu.

Billoba auek esan digutenez, batenbatzuek katua arrapatu, il, maneatu eta jan egin zuten. Gutxi gora-bera ba omen zekian Leunda'k ez-egiteko orren egilleak nor ziran.

Leunda'k, Berazadi'ren tela-fabrikan lan egin ten zuan. Gaurko Fueroen plazan, orain *Cooperativa Laguntasuna* dagoan ortan zegoan fabrika ori. Fabrika txikia esaten zioten.

Bertso auk ez omen dira danak egun batean egiñak. Fabrikako eskribienteak, Leunda bertsoan pixka bat jarduten zana bazekiten eta askotan toreatzen omen zuten:

— Bota bertsoa, Manuel Antonio.

Eta katuarena gertatu zanean ere berdin:

— Bota bertsoa katuari, bota.

Eta arek bota bi edo iru, eta eskribienteak apuntatu. Gero, urrengorako pentsatu egingo zituan berriz ere beste iru, eta olaxe osatu.

Eta, berak ezer etzekiala, itxu bat ibiltzen omen zan orduan erriz-erri bertso saltzen eta ari eman, eta arek inprentara eramane. Bañan katu il eta andik iru edo lau urtera.

Eta itxuak bertsoak buruz ikasi eta plazetan kantatu, eta andreak panderoa jo eta paperak saldu. Aiek ere bizimodua nola-ala atera bearko zuten-da. Iru bider argitaratu omen zituzten bertso auk paperetan.

Ala ere, paper oietako ale bakar bat ere ez degu iñundik eskuratu. Leunda'ren billoba batek, Santos Azpeitia'k, eskuz idatzitako kopia bat zeukan etxean, eta ortik aldatu ditugu bertso auk liburu ontara.

Beste bi kopia ere arkitu ditugu. Bañan oien berri gero emango degu. Bertsoen atzetik alegia. Eta zer aldaketak dituzten ere ezarriko degu.

Kopia orretzaz Santos Azpeitia orrek esana:

— Juanito Leunda'k idatzi zitun auk; gure aitajaun Santosense semeak. Aren letra da au.

1. Motiborikan asko badaukat
bertso berriyak jartzeko,
mundu onetan neregatikan
ez dira asko gordeko;
kulpa dubena ager dedilla
bere denbora guztiko,
merezi diran gauzak esanda
oriek ditut utziko (1).

2. Animali bat ostu dirate
orain etxetik katua,
orregatikan arkitutzen naiz
pena aundi bat artua;
siñale onak emango ditut
egon ez dedin aztua,
eraman diton adiskidia
dagoala aberastua.

3. Katu gaixua maitia nuen,
ederrez pare gabia,
falta etxian sentitzen degu,
orra bakoitzak beria;
jateko etzan eskusaritan
izanagatik emia,
usteko zuten egongo zala
angulak baño obia (2).

(1) Esku-idatzian: *oiek*.

(2) Puntuak esku-idatzian: *gabia, berea, emea, obia*.

4. Katu gaixua garbitu dute
or tabernaren batian,
pikaroren bat allegatu da
sobre neretzat kaltian;
sagu guztiyak igarri dute
ez dagoala etxian,
barkaziyorik ez dauka iñork
ordaña eman artian (3).

5. Galderarikan ez dute egin
ote dagoan saltzeko,
borondaterik ez dute oiek
ordaña entregatzeko;
kozineruak parezka ziran
ederki maniatzeko,
barau-egunik ez dute izan
nere katua jateko.

6. Katu gaixua gizena neukan
esnia ondo emanik,
mundu ontako arratoiakin
geiago ez dezu lanik;
ni besterikan ez du izango
pena artutzen diyonik,
esperantzarik ez daukat orain
berriz etorriko danik.

(3) Puntuak esku-idatzian: *batean, kaltean, etxian, artian.*

7. Burua eta anakak zeuzkaten
kañu-zuluan gordeta,
billatutzia egokitu naiz
usaira akordatuta;
planta ederra zeukan gaixuak
mami guztiyak kenduta,
negarrak ere erteten ziran
larrua ezagututa.

8. Katu gaixua txuriya nuen
eta bigote gorriyak,
belarri motxak zituen baña
begiyak oso larriyak;
falta dedala jakin dezaten
orra señale garbiyak,
jan dutelako etxian dauzkat
oso galera aundiyak.

9. Kalte aundiyak nola dituten
adieraztera nua,
arratoiantzat ez det geiegi
ganbaran detan granua;
sukaldetikan sentitu eta
koleratuta banua,
elbarririkan ez da barrunda,
guztiya dabil sanua.

10. Karrera daude egun guztiyan
gordeta egur tartian,
zazpiretako asitzen dira
binaka eskaratzian;
arratoiakin korridak daude
orain Leunda'ren etxian,
burruntziyakin preparatzen naiz
graneruako atian.
11. Premiyarikan ez baldin bada
zertarako esan gezurra?
Bizi zanian ark egunero
garbitzen zuen muturra;
baita aguro txikitu ere
arratoiaren zintzurra,
arrimatzeko bildurrak zeuden
ura zeguan puntura.
12. Falta dedala akordatzen naiz,
ordaña ez da agiri,
sentimentuak ertetzen diyo
biyotzetikan Leunda'ri;
tamaña ortan eltzen diyonak
katu zarraren zañari,
gusto obia artuko diyo
ollasko-pare onari.

13. Pikaro oiek txasko ederra
entero egin dirate,
erneatutzen ez dit bañan (*sic*)
ixilik egon litezke;
jakiten badet emango diyot
tokatzen danari parte,
orrelakuak bildurtutzia
piska bat merezi dute.

14. Gusto duenak aditu beza (4)
bertsuen errematia,
gizonarentzat onra txarra da
besteren gauza ostia;
baldin geiegi esaten badet
jango dirate bestia,
Leunda'k entero desiatzen du
zein diran agertutzia.

Bertso auen beste kopia bat, makinaz idatzia, Azkoitia'n jaio eta aspaldiko urteetan Zarautz'en bizi dan Patxi Larrañaga'ren eskutik jaso genduan.

Aldaketak: 1/5: kulpa duanak gorde dedilla; 1/7: merezi diran itzak esanda; 2/7: eraman duan adiskia; 3/2: ederra pare gabia; 4/2: or tanernaris batian; 4/4: danak neretzat kaltian; 4/6: ez dagoala atarian; 5/1: preguntarikan ez dute egin; 5/5: koziñeruak parrezka ziran; 5/8: neri katua jateko; 6/5: ni besterikan ez da izango; 6/6: pena artutzen duanik; 7/2: bañan zuluana sartuta; 7/3: billatutzia suzeritu zait; 8/5: palta dedana jakiñ dezaten; 8/8: oso prejuizio aundiak; 9/2: deklaraturera nua; 9/6: koleratuta burua; 10/1: barruan daude egun guztian; 10/4: brinkoka eskaratzian; 10/7:

(4) Esku-idatzian: *adi beza*.

burruntziakin preparatzen da; 10/8: granerorako atian; 11/1: premiarekin ez baldin bada; 11/3: berri zanian ark egunero; 12/2: ordañik ez da agiri; 12/4: biotzetik Leunda'ri; 13/3: enkargatutzen ez ditut baña; 14/1: gusto duenak aditutzia; 14/8: zein diran aitortutzia.

Eta bertsoen ondoren: *Zarauz 12 de Mayo de 1965* (Patxik) Etxetxikiko Manuelek aginduta.

* * *

Beste kopia bat, makinaz eta multikopistaz, Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria zanaren billoba dan Jose Antonio Gesalaga'k eman zigun.

Izenburua: Bere katuari Leunda'k (Etxetxiki'k) jarritakoak. Aldaketak: 1/5: kulpa duanak ager dedilla; 1/7: merezi diran itzak esanda; 2/7: eramán duan adiskidia; 3/2: ederra pare gabia; 3/5: jateko etzan aitzakirikan; 4/2: or tabernari batian; 4/4: danak neretzat kaltian; 4/6: ez dagoala atarian; 5/4: ordañarik emateko; 5/5: kozineruak parrezka ziran; 5/8: neri katua jateko; 6/5: ni besterikan ez da izango; 6/6: pena artutzen duanik; 7/1: burua eta anak an zeuzkan; 7/2: kaña-zuluan sartuta; 7/3: billatutzia egokitu zait; 8/8: kalte izugarri aundiyak; 9/2: deklaraturtera nua; 9/6: koleratuta burua; 10/1: barruan daude egun guztian; 10/4: brinkoka eskaratzian; 10/7: burrunziakin preparatzen da; 10/8: granerurako atian; 11/1: premiarekin ez baldin bada; 11/3: berri zarrían ark egunero; 11/7: inguratzeko bildurrak zeuden; 12/2: ordañik ez da agiri; 12/4: biotzetik Leunda'ri; 13/3: enkargatutzen ez ditut baña; 13/4: ixilik egon litzazke; 14/1: gusto duenak aditutzia; 14/8: zein diran aitortutzia.

TRAPEROAREN ZALDIA

«Telefonoak-eta nola daude orain? Or omen zan traperoa. Eta gure aitonak atera ari bertsoak. Banaka batzuk baditut oraindik gogoan, geiago ere baziran bañan:

Trapero gizajua
auek desgraziyak,
petardo eman dio
alako zalduyak;
indarrak omen zeuzkan
entero biziyak,
sopak jaten zitulako
ardotan bustiyak.

Lekeitio'n jarri dizka
amalau arrua,
aiek eramateko
nun zan alimua?

Derrepente iltzia
ezta milagrúa,
deskantsu obian zioek
orain traperua (1).

Albaiteruangana
juan ziran korrika,
ildako zaldi ori
pizteagatika.
Pultsua ondo artu
bañan alperrika (2),
geroztik etzun izan
mobimenturika.

Eta beste bertso baten bukaera onela:

lonja zarrian zioek
aren sepultura.»

Manuel Antonioren billoba Manuelek, beste
bertso baten erdia:

«Veinte duros he perdido»
esanez zebillen,
onezkero bazekik
Alfonsok Madrillen.

(1) Manuelek beste onela: *orain obeto zioek gure traperua.*

(2) Manuelek: *pultsuak artu bañan alper-alperrika.*

BI BERTSO-PUSKA

Manuel Antonioren billoba Santos Azpeitia Leunda'k onela esan zigun:

«Auek ere aitonarenak. Berazadi'ren tela-fabrikari lan egiten zun, eta an beste langille bat alper xamarra.

Etorri da astearen azkena, eta piezik bukatu gabe dirurik ez, bukatzean pagatzen, eta asarre ura.

Eta gure aitonak onela kantatu zion:

Egon, egon galbanetan,
piezik ez Pazkuetan,
diru gutxi izango dek
tamaña oietan.»

Beste Santos orren lengusu eta Manuel Antonioren billoba Santos Leunda'k, bera ere tartean baitzan, itza artu eta onela esan zuan:

«Neuk ezagutu nun. Illa onezkero ura ere. Bilbo'en bizitzen zan. Zarra eta etorri Etxetxi-

ki'ra egun batean. Gure aitonak orduan larogei-taka urteak. Atarian topo egin eta:

— Kaixo, Manuel Antonio. Akordatzen al zera zer bertso kantatu zidazun?

— Bai —esan zion.

Eta alkarrekin kantatu zuten eta *ja-ja-ja* egi-ten zun besteak.

Ori nere bistan. Geiagotan ere entzungo nion nik ori aitonari.»

Santos Azpeitia'k onela jarraitu zun:

«Gero partidua jokatu omen zuten eta gal-du. Eta aitonak:

Ai zer pelotariak
gure lagunak!
Gu gera partidua
galdu degunak.

Orain ez dakit nola diran bertso oiek: edo segida diran, aurrekoa diran, atzekoa diran edo nola gertatu zan.»

Gure iritziz, bi bertso-puska dira. Bertso-mota, Xenpelarren *Frantzesaren idea* saillarena. *Ai zer pelotariak* aurreko erdia; *Egon, egon galbanetan* atzeko erdia. Kantatu ere doñu orretan egin ziguten. Doñu ori: *Auspoa*, 88-89-90, 212 orri-aldean.

SANTA AGEDA

«Geienez, amar ere ez. Zazpi bat urte izango nitun. Mutil koxkorra beintzat. Eta:

— Aitona, aitona: kanta erakutsi idazu eskera joateko.

Eta aitonak:

— Artu ba gogoan.

Eta ark esan bi edo iru bider eta nik gogoan artu.

Gure etxetik alboan Etxaniz'ekoak ziran: etxeoandrea Madalen eta nagusia Erramun, oraingo auen aitona. Eta aitona gureak:

Kariñosua bixitatzen da
bai egunian bi aldiz,
etxe ontako nagusi jauna
degu Erramun Etxaniz.

Erramun degu nagusi eta
etxeoandria Madalen,
orain gugana etorri bedi
limosnarekin lenbailen.

Esan bezela, aitonak etxean esan oiek, eta nik ikasi eta ara joan eta kantatu.

Emengo beste etxe batean, gurasoak bizi ziran eta semea orduantxe ezkondua. Getari'ko Golindo'tik andrea. Eta nik:

— Aitona: beste etxe ortarako erakutsi idazu.

— Esango diat ba. Auxe kantatu zak:

Etxeko andre berriya,
Golindo'tik etorriya,
zure eskutik esperatzen det
errial biko txuriya.

Amaren etxera ere joan nai, ba; Añorbe'ra. Añorbe, orain *Hostal Paris* nola dago? Ba, aren gañean arkuko etxe ori. Eta gure ama angoa, eta berak ere bazun alako arte pixka bat bertsoarako, eta:

— Ama: osabarentzat erakutsi idazu, ari ere kantatzeko.

— Erakutsiko diat ba.

Eta onela esan oi zidan, eta bai nik ikasi eta kantatu ere:

Ate ondora etorri gera
naiz kantatutzen jakiñ ez,
limosna ona emango digu
osaba Joxe Joakiñek.

Amaren anaiak Joxe Joakin izena zun, ba. Eta amak:

— Osabari orixe kantatu bear diok.

Emen alboko mutil bat, gaur Zarautz'ko fabrika batean bizi dana, Zirilo Larrarte, orixe nere txikitako laguna, eta arentzat ere beste bat ola erakutsi aitonak:

Billabona'tik gorago dago
probintziako Aduna,
emengo arrautzak kontatutzeko
Zirilo det nik laguna.

Eta lengo bertsolari zarretatik ikasiak ere bai:

Atzo goizian Pamplona'n giñan,
orain gerade etorri,
obispuaren libertadia
geurekin degu ekarri.

Alkate jaunaz egondu gera
atzoko arratsaldian,
libertadia geurekin degu
ibillitzeko pakian.

Okasiorik pizten badegu
geurok alkarren artian,
alkate jaunak sartuko gaitu
kartzela illun batian.

Jainkoak gizon zintzoa ziñun
mundu ontara bialdu,
galtzak soñian jantzi ezker
olakoxia biar du.

Nik neuk ere badet olako bat asmatu eta kantatua. Ezkondu ezkerro zan. Ez giñan eskean ibiltzen. Bañan batean, tabernan geundela, etxe-koandrea Pilar zan eta nagusia Ruperto, eta nagusiak esan zuan:

— Bertsoa kantatzen badek, botilla bat ardo emango diagu. Aterako al dek?

Eta orduan kantatu nun:

Etxekoandria Pilar degu ta
nagusi jauna Ruperto,
botilla ardo bat ekarri zazu
kantatutzeko obeto.»

Onerañokoak, bestetan bezela, Santos Leunda'k esanak. Bañan beraren anai Manuelek beste bi koplak eman dizkigu, auek ere aitonari ikasiak:

Etxekoandre onek badauka
guretzat borondatia,
zure limosna estimatzen det
osatutzeko dotia.

Desiatua nago ni orain
zure limosna artzeko,
gero denbora datorrenian
toki onian sartzeko.

AGERRE-BERRI

Manuel Antonio Leunda'ren billoba Santosek kontatu digunez, bertso auen gertaera onela izan zan:

«Gaurko Talaimendi jatetxea, baserria zan lenago. Agerre-berri izena. Agerre-zar ere antxe du alboan.

Baserria kendu eta jatetxea jarri zutenean, izenik aldatu gabe lengoarekin gelditu zitekean noski. Bañan ez.

Agerre-berri ortan senide-mordoxka ziran: Kalixto, Xegundo, Markox, Xilberio, Agustin, Joxe eta arreba Marta ere bai.

Eiztari amorratuak anai danak ere. Xegundo, gerratean izandua.

Xegundo Nikolasaene'ra aldatu zan gero. Etxe orrek, orain Etxanizenea dauka izena jarria. Gaur Zubiondo'n bizi dira ondorengoak. Laburu, apeliua.

Baratza ederra zuten, bañan batenbatek pipermorroak ostu gabez. Xegundo-eta, asarrreru eta alanbreak txintxarriakin jarri.

Eta orduan gure aitonak-eta kuadrillan bertso auk moldatu, sagardotegian umore pixka bat jarri eta kantatzeko.»

* * *

Azkoitia'n jaio eta Zarautz'en bizi dan Patxi Larrañaga bertsolari eta bertsozale purrukatuak, beste argibide auk eman dizkigu:

«Xegundok zeukan baratza, eta ara lapurretara gauaz-edo batenbat joaten zala bazekian eta pentsatu zuan:

—Arrapatu bear diat, ba, nik lapur ori.

Bai arrapatu ere. Jarri da zai gau batez, eta, pipermorroetan zebillela sentitu zuanean, tiroa tira omen zion eta artara ikusi lapurra zein zan.

Barea baño txarragoa; bareak pixka bat jaten du-ta, bañan arek asko eramaten omen zuan.

* * *

Manuel Antonioren billoba Santos Leunda'k eta Santos Azpeitia'k, doñu eta bertso auk kantatu zizkiguten:

A handwritten musical score consisting of ten staves. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a time signature of 5/8. The notation is written in black ink on white paper. The first eight staves contain musical notation, including quarter notes, eighth notes, and rests, with some notes beamed together. The final two staves at the bottom of the page are empty, showing only the five-line structure of the staves.

1. Mutilzar bat badago
Agerre-berriyan,
beste bat ezta egongo
Zarautz'ko erriyan,
bertsua paratzeko
zelebrekeriyan,
begi bakarra bañan (1)
ona punteriyen.

2. Gerratian Xegundo
izan zan soldadu,
irabazi zituban
emeretzi gradu;
orregatik Xegundok
lapurra ilko du,
polborak edo balak
indarrikan badu.

3. Pipermorru ederrak
baziran baratzen,
aiek arrapatzera
lapurren bat jua zan;
alanbria jo zuen
lenengo balantzen,
tiro izugarri bat
orduan izan zan.

(1) «Begi bakarrik ez det nik Agerre-berri'n eza-
gutu», esan zigun Santos Leunda'k.

4. Aita eta semeak
falta diranian,
bestiak ez daude lo
oiaren gañian;
alanbriak soñua
jotzen duanian,
amak e tiratzen du
bestiak añian.

5. Agerre-berriya'ko
Migel Antoniyo,
eiztari ona dala
aditu oi niyo(n);
albotikan erbiya
atera omen zayo,
atzia eman eta
agur egin diyo.»

Ez du ematen azken bertso onek aurrekoen
ariari xuxen jarraitzen dionik.

* * *

Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria zanaren bi-
lloba batek, Jose Antonio Gesalaga'k, beste ber-
tso au eman zigun:

Etxe atzeko soruan,
lenbiziko muan,
erbi bat billatu det
nik lenengo luan;
eskuakin ikuitzeraño
ni nitzaion juan,
akordatu ez balitz
arrapatzen nuan.

MANUELEN ZENBAIT BERTSO

Len esan bezela, Manuel Antonioren billoba bat, Manuel, bertsoan jarduten zana zan. Beraren bertso auek bildu ditugu, berak edo anaiak esanda. Lenengo au, anaiaren aotik jaso:

«Gure anai ori, goizean, jeikitzeke ona zala amak esaten zion, bañan parrandarako ere bai. Batean, ortxe tertulian-edo; Toribio Arruti ere antxe, eta, anaia altxatzerakoan, Arruti orrek:

—Bota bertsoa, Manuel; bota despedidakoa.

Eta anaiak:

Jan ere bapo egin degu ta
sartu deu franko erari,
bañan alare zutik gabiltza,
ezkera oraindik erori;
gure Jainkuak laguntzen dio
ondo portatzen danari,
gau on bat pasa guztiok eta
agur on bana danari.

* * *

Beste au ere anai Santosi jaso:

«Manuel panaderitzan gabea; andreak abixua bialdu ordu bietan, bañan bostetan ura etxera. Orduko bertsoaren puska bat onela zan:

Ordu bietan abixa idazu,
etorri nazu bostetan,
gaurkuagatik barkatu idazu,
eztet egingo askotan.

* * *

Onako au, Manueli berari jaso:

«Batean berandu erretiratu, eta andrea seme-alabakin lotan. Orduan onela kantatu nun:

Nere andria, ondo al zaude
seme-alabakin lotan?
Gure Jainkuak bakarrik daki
nik zenbat maite zaitutan;
bañan alare jarduten zera
gau eta egun erritan,
alper-alperrik errezatzen det
nik zuretzako prallean.

* * *

Manuelen aotik beste au ere:

«Orain ogei ta bost urte, aparia egin gendun. Ala egokitu eta gurdi batean exerita ni etxera, eta andrea leiotik begira. Orduan:

Gaur eran detalako
biar baño geyo,
oain emen eskalletan
ezin gora iyo;
bakarrik joango naizenik
ez naiz oso piyo,
andria laguntzera
etortzia nayo.»

* * *

Manuelek berak emana au ere:

«Orain ogei bat urte, ezagun batekin topo
egin paseatzera joanda, eta orduan:

Gosal onduan atera nazu
Abendaño'tikan gora,
birian gutxi korritu arren
pasatzen degu denbora;
leno bezela neska gazterik
etzait etortzen ondora,
bakar-bakarrik pasiatzen det
aitona zarren modura.»

* * *

Beste au, berriz, Santosen aotik:

«Anaiaren koñadua, andrearen anaia, Ame-
riketan zan, eta andregaiia emen zun eta egin zi-
ran ordezkoarekin ezkondu. San Martin ba al
dakizu nun dan? Autopistaren gañean, ermita
txiki bat. Berrituta dago orain. Ortxe ezkondu
ziran. Eta bazkaritan bertso au kantatu Manue-
lek:

Iritxi da ordua
ezkondu biazuna,
bestek e jarri dizu
zuri eraztuna;
Ameriketan dago
zure erostuna,
orain urte batzuek
emendikan juna,
besuak zabaldua
artuko zaituna.»

* * *

Gertaera au Santosek; bertsoa Manuelek:

«Goitik bera andregaiia eta biok, oñez, Asentziotan-edo. Orio'ko gañetik bera Aia'ko automobilla, eta aren gañean anaia-ta. Arek orduan kantatua bada bertso bat, eta esan ere egin izan dit berak neri, bañan ez daukat gogoan.

Aizak, *hermano*, kunplitu bear dek euk artutako kargua,
alkarganatu bear dezute allegatzian ordua;
eztik merezi beti nekian pasatutzia mundua,
neskatx orrekin ein bear dek ama deskantsatzeko modua.»

Santos baitzan etxerako. Bañan Manuelek ere andregaiia bazuan eta bi anaiak meza batean ezkondu ziran.

«EGIA AL DA JARDUN ZIÑALA...»

1936'eko gerratean, Etxetxiki'ko bi anai, Joxe eta Santos, kintak arrapatu zituan. Joxe, okerrik gabe etorri zan. Santos, iru bider eritu zuten. Nun eta nola, berak esango digu:

«Lenbiziko, Sabiñanigo'n eritu niñuten. Trinxeretan geunden, bañan alkarren bistan. Eta tiroa suelto tira eta balazoa emen sartu zidaten, besoan.

Bigarren, Teruel'en, Castellón'go ofensiban. Goizaldea zan eta etzanda nengon, erdi lotan. *Siete y medio*'ko proietillak, txapelean enblema neukan ametralladorena eta ura kendu eta be-soa dana aunditu. Lertu izan balitz, ez dakit nere puskak noraño joango ziran.

Makiña bat bider esan zidan kapitanak, proietilla erakutsiaz:

—*Esto te lo tienes que llevar de recuerdo.*

Andik Bilbo'ra bialdu niñuten, Lujuara, ospitalera.

Irugarren, Barracas'en, Teruel'dik Valencia'rako bidean. Goiz batean, gu mendia artzera eta kaballeria albotik pasa. Kañonazo batek, muni-zioz kargatutako mando bat zuzenean jo eta bomba danak lertu. Metrallak, segadora batek bezela inguru guziak garbitu. Nik ez dakit zer pasako zan an, bañan illa asko izango zan. Neri, metrallak jo eta gorputz guzian marka ederrik utzi, orain urteakin disimulatuta daude baña. Italia-noak egin zidaten lenbiziko kura. Gero, Mora de Rubielos'era eramán niñuten.

An nengola, euskaldun bat anbulantziarekin, eta ni ere euskalduna nintzala eta:

—Nungoa aiz? —galdetu zidan.

—Ni Zarautz'koa.

—Ba, ni Orio'koa nauk.

Attaun estropalariaren famelikoa. Aren anbulantzian Teruel'era. An zintzilik jarri trenean kamillan, eta Zaragoza'ra. Orduan il-zorian egon nintzan. Gero, Pamplona'ra. Urrena, Naparroa'ko erri batera edo nai nun tokira. Eta Zarautz'en ere ospitala zegon eta onera etorri.

Kataluña'n, berriz, tifus arrapatu. Ezaguera-rik gabe ez dakit zenbat egun pasa nitun. Onera eman nunean, Tolosa'ra biali niñuten, ezur eta azala besterik ez nintzala. Ango *Zerutxiki*'ra arratsaldero joaten nintzan meriendatzera. Tortilla udaberriko zizakin eta txuleta jaten nitun, eta astero iru kilo irabazi.»

Etxerakoan, anai Manuelek bertso batzuk kantatu zizkion. Geiago ere izango zan noski. Manuelek onako auek gogoratu ditu orain:

1. Egia al da jardun ziñala
zu Teruel'ko frentian,
fusil da *bomba de mano*'rekin
beste askoren artian?
Probatu arte ezta jakiten
zer gertatu litekian,
zu gaur suertez emen zabilta.
illak e izango zian.

2. Ildakoari pena artzen diot,
poz aundi bat berriz zuri,
bizi danak e ikusten ditu
gaur makiña bat komeri;
ni neronek e aditzen diet
askon aita ta amari:
«Gure semiak bein juan ziran da
eztira geio ageri.»

3. Zenbat guraso dagon negarrez
gerra asi zan ezkeru,
beren semien notizi gabe
gelditu ziran ezkeru (1),
errosaiua errezatuaz
aztu gabe egunero:
«Akaso ezta illa izango,
ai balitz prisionero!»

(1) *Ezkeru* bi aldiz punturako. Manueli galdetu eta esan-naiak ezberdiñak dirala esan zigun. Batean, *gerra asi zanetik*; eta bestean *gelditu ziralako*. Potorik ez da, beraz.

4. Egun guzian tiro tartian
 pasa ta gero illuntzên,
 elurra zegon tokira lotâ
 igual ziguten agintzen;
 gabian jela egiten zun da
 ezkiñan asko berotzen,
 bat baño geio ikusi giñun
 otzak gogortu ta iltzen.
5. Frente bat txarra Teruel'en zan
 askok daki probatuta,
 amaren seme ederra pranko
 bada an enterratuta;
 kontratakiak eiten zituzten
 tanke tzar batzuk artuta,
 bañan bandera guk jarri gendun
 kanpantorrian sartuta.
6. Ospitalian daukat anai bat
 gaxotuta gelditua,
 fusillen balan edo metrallak
 iru bider eritua;

 kulpa aundirik etzuan baña
 ez da gutxi sufritua.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. B. Iraola: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. A. M.^a Zabala: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. A. M.^a Labayen: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. P. Larzabal: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*)
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. F. Imaz: Bertso guziak. (*Aitua*).



25. A. P. Iturriaga: Jolasak. (*Aitua*).
26. A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zala-partak. (*Aitua*).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. B. A. Mogel: Ipui onak. (*Aitua*).
29. T. Alzaga: Burruntziya. (*Aitua*).
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. M. Soroa: Baratzan. (*Aitua*).
32. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. M. Elizegui, A. Zavala: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. P. Larzabal: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. J. V. de Echagaray: Festara.
37. A. Cardaberaz: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. S. Salaverria: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. Bertsolariak: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. J. R. Zubillaga: Lardasketa. (*Aitua*).
42. Uztapide: Noizbait. (*Aitua*).
43. Bertsolari-txapelketa. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. P. Larzabal: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. J. M. Satrustegui: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. P. M. Urruzuno: Iru ziri. (*Aitua*).
48. P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. A. Zavala: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. P. M. Urruzuno: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. G. Anduaga: Bertso-bilduma.
54. A. Zavala: Pernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. Basarri: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. A. Zavala: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. C. Beobide: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. A. Zavala: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. A. Zavala: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. A. Zavala: Gaztelu bertsolaria.
62. A. Zavala: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. A. Zavala: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. J. M. Satrustegui: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. A. Zavala: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. A. Zavala: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. A. Iturriaga: Ipuiak.
73. A. Zavala: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).

- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*.)
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*.)
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*.)
84. *M. Matxain*: Uste gabeen.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*.)
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*.)
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*.)
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*.)
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*.)
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*.)
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*.)
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*.)
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxua. (*Aitua*.)
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*.)
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*.)
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*.)
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak.
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*.)
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*.)
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*.)
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.

129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J. M. Arrizabalo - A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.



1051013
G-128/24



AUSPOA
LIBURUTEGIA

G